## ELGOIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Elgoibarko hiri izaera duten elgoibarko bide publikoetako erabilera, trafikoa eta segurtasuna arautzen dituen ordenantza hasiera bateko onarpena argitaratu ondoren, eta 7/1985 Legearen 49.c artikuluan zehazten den legezko epean jendaurrean egon eta inolako erreklamaziorik egon ez denez, behin betiko onartutzat jotzen da.

Ondorioz, eta Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan jasotakoari jarraiki, aipaturiko Ordenantza osorik argitaratuko da.

Elgoibar, 2010eko irailaren 14a.—Alfredo Etxeberria Murua, Alkatea.

(3112) (10739)

### HIRI IZAERA DUTEN ELGOIBARKO BIDE PUBLIKOETAKO ERABILERA, TRAFIKOA ETA SEGURTASUNA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren (Trafikoari, Zirkulazioari, Motordun Ibilgailuei eta Bide Segurtasunari buruzko Legea) 7-b) Artikuluan xedatutakoari jarraiki, Ordenantza hau ematen da, Udalaren araudia indarrean dagoen legedira, eta batez ere, azaroaren 23ko 18/2009 Legera egokitzeko. Lege horrek, zigor arloan, aipatutako Legegintzako Errege Dekretua aldatzen du. Horretaz gain, Ordenantza honetan sartzen dira arautze berberaren xedetzat jotzen diren arauak, bai herri-bideetan izan beharreko ordenari eta segurtasunari, bai herri bide horiek behar bezala erabiltzeko moduari eragiten dietelako.

### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Eskuduntza.*

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluaren b) eta II atalek, trafikoaren eta zirkulazioaren arloan, udalerriei ematen dizkieten eskumenei jarraiki eman da Ordenantza hau. Horretaz gain, kontuan izan behar da ezinbestekoa dela ordenantza udalerriko gaur egungo trafikoaren eta bideen erabileraren egoerara egokitzea ondorengo lege-araudiak ezarri izanaren ondorioz: 18/1989 Legea, uztailaren 25ekoa, Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko arauak onartzen dituena (martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartua) eta Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorra onartzen duen uztailaren 17ko 13/1992 Errege Dekretuaren bidez garatua. Era berean, testu artikulatu hori erreformatzen duen azaroaren 23ko 18/2009 Legea ere izan da kontuan

*2. artikulua. Arautzearen xedea.*

Ordenantza honen helburua da herri bide publikoetako trafikoaren erabilera arautzea; trafikoa antolatu, zaindu eta zaintzea; arau-hausteak salatu eta zigortzea, eta ibilgailuak -abandonatutakoak barne- ibilgetu, herri bidetik erretiratu eta gordailatzea.

*3. artikulua. Ordenantzaren ezarpen eremua.*

Ordenantza honetan jasotako aginduak Elgoibarko udalerriko honako toki hauetan ezarriko dira: Guztion erabilerarako bideetan (publikoak edo pribatuak); mota guztietako ibilgailuak gelditzeko edo aparkatzeko guneetan; zeharbideetan; plazetan; kale edo herri bideetan. Ordenantzek, bestalde, ondorengoei eragingo diete:

## AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR

*Anuncio*

Habiendo sido publicada la aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza municipal reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano de Elgoibar y no habiéndose producido reclamación alguna en el plazo legal de exposición pública, de conformidad con lo estipulado con el artículo 49.c de la Ley 7/1985, se entiende definitivamente aprobado.

En consecuencia, se procede a la publicación íntegra de la citada Ordenanza, conforme a lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Elgoibar, a 14 de setiembre de 20 10.—El Alcalde, Alfredo Etxeberria Murua.

(3112) (10739)

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LOS USOS, TRÁFICO, CIRCULACIÓN Y SEGURIDAD EN LAS VIAS PÚBLICAS DE CARACTER URBANO

En virtud de lo establecido en el Artículo 7-b) del Real Decreto Legislativo 339/1990 (Ley sobre tráfico, circulación de vehículos a motor y de seguridad vial) del 2 de marzo, se dicta la presente Ordenanza con la finalidad de adaptar la normativa municipal a la vigente legislación, especialmente a la Ley 18/2009, de 23 de noviembre, que modifica el citado RDL en materia sancionadora, incluyendo al tiempo aquellas normas que, por afectar al orden y seguridad en las vías públicas, así como a las formas debidas de utilización de las mismas, se consideran dentro de un mismo objeto de regulación.

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Competencia.*

La presente Ordenanza se dicta en virtud de la competencia atribuida a los municipio en materia de tráfico y circulación por la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, en su artículo 25 apartados b) y II, así como por la ineludible necesidad de adaptación a la situación actual del tráfico y usos de las vías del término municipal derivado de la aplicación de la Ley 18/1989, de 25 de julio, de Bases sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial aprobada por R.D.L.339/1990, de 2 de marzo y que se desarrolla por R.D. 13/1992 de 17 de enero, que aprueba el Reglamento General de Circulación y tenida en cuenta la Ley 18/2009 de 23 de noviembre que reforma el texto articulado.

*Artículo 2. Objeto de regulación.*

Es objeto de la regulación de esta Ordenanza, el uso de las vías urbanas en relación al tráfico, así como la ordenación, vigilancia y control del mismo, la denuncia y sanción de las infracciones y la adopción de las medidas provisionales de inmovilización, retirada de la vía pública y depósito de vehículos y vehículos abandonados.

*Artículo 3. Ámbito de aplicación territorial.*

Los preceptos contenidos en esta Ordenanza serán de aplicación en todas las vías de uso común, públicas o privadas, zonas de parada o estacionamiento de cualquier clase de vehículos, travesías, plazas, calles o vías urbanas y caminos de dominio público del término municipal de Elgoibar, y afectarán a:

3.1. Arestiko paragrafoan adierazitako bideen erabiltzaileei, ibilgailuetako gidariak, titularrak, jabeak edo okupatzaileak diren kontuan izan gabe, eta bakarrik edo taldeka zirkulatzen duten kontuan izan gabe.

3.2. Arestiko paragrafoan aipatzen ez diren pertsona fisiko edo juridiko guztiei, baldin eta agindu horiek eragiten badiete.

3.3. Obren kontratistei eta herri bideko zirkulazio librea murrizten edo oztopatzen duten obrak egiten dituzten erakundeei edo norbanakoei.

3.4. Arestiko paragrafoan aipatutako bideetako trafikoan sartuta dauden ibilgailuei, aparkatuta daudenei eta ibilian dabiltzanei.

3.5. Soltean edo taldean dabiltzan animaliak. Adierazitako aginduak ez dira ezarriko erabilera publikokoak ez diren eta jabeek edo horien ardurapekoek bakarrik erabiltzen dituzten bideetan, lursailetan, garajeetan, kotxetegietan edo antzeko lokaletan.

## I. TITULUA
## II. HERRI BIDEETAKO TRAFIKOA ETA ZIRKULAZIOA ANTOLATZEA

### I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

#### 1. ATALA. Ibilgailuen zirkulazioa

*4. artikulua. Legedi orokorra zuzenean ezartzea.*

Udal Ordenantza honen gehigarri gisa 339/90 Errege Dekretu Legegilea eta horrekin bat datorren araudia izango dira kontuan.

*5. artikulua. Trafikoa antolatzeko eta kontrolatzeko neurriak.*

5.1. Udalak egoki iritzitako neurri guztiak hartu ahal izango ditu trafikoa antolatzeko. Horretarako, behin betiko edo aldi baterako aldatu, mugatu edo debekatuko ditu ibilgailu edo oinezko guztiek zirkulatzeko dituzten baldintzak. Horretaz gain, aparkaldiak, zamalanak eta pertsonen edo salgaien garraioa berrantolatu edo arautu ahal izango ditu.

5.2. Udaltzaingoak, aldi baterako, herriko gune jakin bateko zirkulazioaren antolamendua aldatu ahal izango du, edota, pertsonei edo ibilgailuei lekuren batera joatea debekatu ahal izango die. Horretarako, egokitzat jotzen dituen seinaleak jarri edo kendu ahal izango ditu, eta beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu, zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna bermatzeko.

5.3. Udaltzainek edo laguntzaileek aparkatzerako, zirkulatzerako edo pertsonak, ondasunak edo ibilgailuak garraiatzerako orduan ematen dituzten argibideek lehentasuna izango dute aldez aurretik ezarrita dauden seinale edo araudi guztien gainetik.

5.4. Udalak, aldi baterako, hainbat gunetan aparkatzea debekatu ahal izango du; baldin eta bertan baimendutako jarduerak egin behar badira, edo gune hori konpontzeko, seinaleztatzeko, mantentzeko edo garbitzeko lanak egin behar badira. Hori dela-eta, mugatu egingo dira gune horiek; eta halaber, 24 orduko aurrerapenaz debeku horren berri ematen duten informazio-seinaleak jarriko dira, neurri hori zein ordutan jarriko den abian adierazteko.

3.1. Los usuarios de las vías comprendidas en el primer párrafo, sean conductores, titulares, propietarios, ocupantes de vehículos o peatones, tanto si circulan individualmente como en grupo.

3.2. Todas las personas físicas o jurídicas que, sin estar comprendidas en el párrafo anterior, resulten afectadas por dichos preceptos.

3.3. Los contratistas de obras y entidades o particulares que realicen obras que afecten a la libre circulación en la vía pública, la restrinjan o supriman.

3.4. Los vehículos de cualquier clase que se encuentren incorporados al tráfico en las vías relacionadas en el primer párrafo, estén aparcados o en movimiento.

3.5. Los animales, sueltos o en rebaño. No serán aplicables los preceptos mencionados en los caminos, terrenos, garajes, cocheras u otros locales de similar naturaleza que no sean de uso público y se destinen al exclusivo de los propietarios o sus dependientes.

## TITULO I
## DE LA ORDENACION DEL TRÁFICO Y CIRCULACION EN LAS VIAS URBANAS

### CAPITULO I. PRINCIPIOS GENERALES

#### SECCION. 1 De la circulación de vehículos

*Artículo 4. Aplicación directa de la legislación general.*

Serán de aplicación supletoria a esta Ordenanza municipal el R.D.L. 339/90 y normativa concordante.

*Artículo 5. Medidas de ordenación y control del Tráfico.*

5.1. Por el Ayuntamiento podrán adoptarse las medidas de ordenación del tráfico que se consideren oportunas, modificando, restringiendo o prohibiendo con carácter fijo o temporal, las condiciones de circulación de todos o algunos vehículos o peatones y reordenando o regulando el establecimiento, las operaciones de carga y descarga y el transporte de personas o mercancías.

5.2. La Policía Municipal podrá modificar temporalmente la ordenación de la circulación en alguna zona de la villa y/o prohibir el acceso de personas o vehículos a algún lugar, para lo que podrá colocar o retirar provisionalmente las señales que considere precisas y tomar las medidas necesarias, en orden a la seguridad y fluidez de circulación.

5.3. Las indicaciones de los policías municipales o de sus auxiliares en materia de estacionamiento, circulación o transporte de personas, bienes o vehículos, tendrán prioridad sobre cualquier señalización o normativa preexistente.

5.4. El Ayuntamiento podrá prohibir temporalmente el estacionamiento de vehículos en las zonas que hayan de ser ocupadas por actividades autorizadas o que hayan de ser objeto de labores de reparación, señalización, mantenimiento o limpieza. A tal efecto, se delimitarán dichas zonas, señalizándose la prohibición con 24 horas de antelación mediante señales informativas en las que conste el momento en que se iniciará tal medida.

## II. KAPITULUA. ZIRKULATZEAN IZAN BEHARREKO PORTAERA ARAUAK

*6. artikulua.*

Bideen erabiltzaileek debekatuta izango dute zirkulazioa berariaz oztopatzeko moduan portatzea, pertsonei beharrezkoak ez diren arriskuak, kalteak edo eragozpenak sortzea eta ondasunei kalteak eragitea.

*7. artikulua.*

Herri-bideetan obrak egin edo instalazioak jartzeko ezinbestekoa izango da, aldez aurretik, Udalaren baimena izatea. Baimenak, bestalde, Ordenantza honetako dagokion kapituluan xedatutakoari jarraiki arautuko dira.

*8. artikulua.*

Debekatuta dago zirkulazio librea, gelditzea edo aparkatzea eragotzi edo arriskutsu bihur dezaketen objektuak bidera botatzea edo bertan laga edo abandonatzea. Era berean, debekatuta dago bidea edo bertako instalazioak honda ditzaketen, edo bidean eta inguruetan zirkulatzeko, gelditzeko edo aparkatzeko baldintza egokiak aldaraz ditzaketen objektuak bidera botatzea edo bertan laga eta abandonatzea.

*9. artikulua.*

Ordenantza honen bitartez araututako gehienezko abiaduraren muga 50 kilometro ordukoa izango da. Hala ere, udal agintaritzak, bideen ezaugarri bereziak kontuan izanik, hainbat bidetan abiadura horren azpiko muga jarri ahal izango du.

*10. artikulua.*

Gidariek behar adinako arduraz, kontuz eta arretaz gidatu beharko dute ibilgailua, norberari edo ondokoei kalterik ez egiteko. Horretaz gain, kontu izango dute euren burua eta ibilgailuan dauden gainerako pertsonak eta bideko gainerako erabiltzaileak arriskuan ez jartzeko.

*11. artikulua.*

Ihes-hodia hondatuta edo aldatuta duten ibilgailuek ez dute zirkulatzerik izango, baldin eta sonometro homologatua 10 metroko distantziara eta zarata ateratzen den zuloaren parean jarrita ematen duen neurketa 80 dezibeliotik gorakoa bada.

*12. artikulua.*

Bizikletak, ziklomotoreak eta motozikletak gidatzen dituztenek indarrean dauden zirkulazio arauak eta seinaleak ezagutu beharko dituzte. Horrela bada, orpoz orpo beteko dute arauetan adierazitakoa, baita Agintaritzaren Agenteek ematen dituzten argibideak ere.

*13. artikulua.*

Bizikletek, patinek, gurpil-oholek eta trizikloek berariaz jarritako erreietatik zirkulatu beharko dute, edo bestela, oinezkoentzako guneetatik; baldin eta bertan dauden oinezkoen kopuruak horretarako bide ematen badu. Dena dela, oinezkoen lehentasuna errespetatu beharko da, beraientzako arriskurik sortu gabe. Hori dela-eta, abiadura oinezkoen abiadurara egokitu beharko da.

*14. artikulua.*

Debekatuta dago galtzadan barrena patinekin, gurpil-oholekin edo antzekoekin zirkulatzea.

*15. artikulua.*

Bizikletak galtzadan zehar dabiltzanean, ahalik eta gehien hurbilduko dira eskuinera.

## CAPITULO II. NORMAS DE COMPORTAMIENTO EN LA CIRCULACIÓN

*Artículo 6.*

Los usuarios de las vías están obligados a comportarse de manera que no entorpezcan indebidamente la circulación ni causen peligro, perjuicio o molestias innecesarias a las personas, o daños a los bienes.

*Artículo 7.*

La realización de obras o instalaciones en las vías urbanas necesitará la previa licencia municipal, y se regirán por lo dispuesto en el capítulo correspondiente de esta Ordenanza.

*Artículo 8.*

Se prohíbe arrojar, depositar o abandonar sobre la vía objetos que puedan entorpecer la libre circulación, parada o estacionamiento, hacerlos peligrosos, deteriorar aquella o sus instalaciones, o producir en la misma o en sus inmediaciones, efectos que modifiquen las condiciones apropiadas para circular, parar o estacionar.

*Artículo 9.*

El límite máximo de velocidad de marcha autorizado en las vías reguladas por la presente ordenanza es de 50 Km/h., sin perjuicio de que la autoridad municipal, vistas sus características peculiares, pueda establecer en ciertas vías límites inferiores.

*Artículo 10.*

Los conductores deben utilizar el vehículo con la diligencia, precaución y no distracción necesarias para evitar todo daño, propio o ajeno, cuidando de no poner en peligro tanto a sí mismos como a los demás ocupantes del vehículo y al resto de usuarios de la vía.

*Artículo 11.*

No podrán circular los vehículos que presenten el tubo de escape deteriorado o alterado cuando la medición realizada por sonómetro homologado a 10 metros de distancia y frontalmente al orificio emisor arroje una medición superior a los 80 decibelios.

*Artículo 12.*

Los conductores de bicicletas, ciclomotores y motocicletas deberán conocer las normas de circulación y señalización vigentes, ateniéndose estrictamente a ellas y a las indicaciones de los Agentes de la Autoridad.

*Artículo 13.*

Las bicicletas, patines, monopatines y triciclos deberán circular por los carriles reservados al efecto, y en su defecto, podrán hacerlo por las áreas peatonales, siempre y cuando la afluencia de peatones lo permita, respetando la prioridad de éstos y sin crear peligrosidad para los mismos, adecuando su velocidad a la normal de un peatón.

*Artículo 14.*

Queda prohibido circular por la calzada con patines, monopatines o similares.

*Artículo 15.*

Cuando las bicicletas circulen por la calzada, lo harán tan próximos a la derecha como sea posible.

*16. artikulua.*

Txirrindulari batek baino gehiagok zirkulatzen dutenean, herrenkadan zirkulatu ahal izango dute, edo bestela, binaka. Era berean, ahalik eta gehien hurbilduko dira bidearen eskuinaldera. Bestalde, ikuspenik gabeko bide-zatietan eta trafiko pilaketak daudenean, herrenkadan zirkulatu beharko dute.

*17. artikulua.*

Debekatuta dago bizikletetan edo ziklomotoreetan bidaiariak eramatea. Ziklomotoreek baimena baldin badute, bidaiariak eraman ahalko dituzte. Horretaz gain, debekatuta dago gidariaren eta ibilgailua gidatzeko aginteen artean bidaiariak eramatea. Halaber, debekatuta dago zamak garraiatzea, baldin eta makinaren ikuspena edo oreka murrizten bada, edo gidatzeko oztopoak sortzen badira.

*18. artikulua.*

Gurpildun aulkiek espaloietatik edo oinezkoen guneetatik zirkulatu beharko dute. Aulkien tamaina dela-eta, ez zaie oinezkoei trabarik egingo. Oinezkoak oztopatuz gero, aulkiek galtzadan barrena zirkulatuko dute, bidearen eskuineko aldetik ahalik eta gertuen. Horretaz gain, une oro, bide seinaleak errespetatuko dituzte.

*19. artikulua.*

Udal Agintaritzak mugak jarri ahal izango dizkie pisu edo neurri jakin batetik gorako ibilgailuei hainbat lekutan edo ordutan zirkulatu eta aparkatu ahal izateko. Ibilgailu horiek Udalaren berariazko baimena izan beharko dute udalerriko herri-bideetatik zirkulatzeko. Baimena bidaia bakarrerako edo denboraldi baterako eman ahal izango da.

III. KAPITULUA. SEINALIZAZIOA

*20. artikulua.*

Udalerri guztian jarritako zirkulazio seinaleek, bertikalek nahiz horizontalek, herri-bide guztietan arautuko dute.

*21. artikulua.*

Ezin izango da zirkulazio seinalerik jarri Udalaren baimenik gabe.

*22. artikulua.*

Udalaren iritziz herri interesekoak diren informazio-seinaleak besterik ez dira baimenduko.

*23. artikulua.*

Debekatuta dago zirkulazio seinaleetan edo horien ondoan publizitatea jartzea.

*24. artikulua.*

Debekatuta dago markesinak, kartelak edo iragarkiak jartzea, baldin eta erabiltzaileei semaforoak eta seinaleak ikusteko zailtasuna edo ezintasuna sortzen badiete, edo erabiltzaileen arreta murrizten badute.

*25. artikulua.*

Udal agintaritzak behar bezala baimenduta ez dauden edo arauak betetzen ez dituzten seinale guztiak kenduko ditu. Gastu guztiak seinaleak instalatu dituztenek ordaindu beharko dituzte, edo subsidiarioki, seinaleen onuradunek.

*Artículo 16.*

Cuando circulen en grupo varios ciclistas podrán hacerlo en columna de a dos, orillados todo lo posible al extremo derecho de la vía y colocándose en hilera en tramos sin visibilidad y cuando formen aglomeraciones de tráfico.

*Artículo 17.*

Queda prohibido el transporte de viajeros en bicicletas y ciclomotores, salvo que éste último lo tenga autorizado, así como la colocación de ningún viajero entre el conductor y los mandos de dirección del vehículo. Igualmente, se prohíbe el transporte de carga que reduzca la visión, desequilibrio de la máquina o entorpezca su manejo.

*Artículo 18.*

Las sillas de ruedas circularán por las aceras o áreas peatonales siempre que sus dimensiones permitan hacerlo sin estorbar a los viandantes. En caso contrario, lo harán por la calzada, lo más pegados a su borde derecho que sea posible y respetando en todo momento la señalización de las vías.

*Artículo 19.*

La Autoridad Municipal podrá limitar la circulación o el estacionamiento en determinadas zonas y/u horas de los vehículos que excedan de cierto peso o dimensiones, que no podrán circular por las vías públicas del municipio sin autorización municipal expresa que podrá concederse para un sólo viaje o para determinado periodo de tiempo.

CAPITULO III. DE LA SEÑALIZACIÓN

*Artículo 20.*

Las señales de circulación colocadas en todo el término municipal tanto vertical como horizontal, regirán en todas las vías públicas.

*Artículo 21.*

No se podrán colocar señales de circulación sin la previa autorización municipal.

*Artículo 22.*

Sólo se autorizarán las señales informativas que, a criterio de la Autoridad municipal, sean de interés público.

*Artículo 23.*

No se permitirá la colocación de publicidad en las señales de circulación o junto a las mismas.

*Artículo 24.*

Se prohíbe la colocación de marquesinas, carteles, anuncios e instalaciones que impidan o limiten a los usuarios la normal visibilidad de los semáforos y señales o que puedan distraer su atención.

*Artículo 25.*

La Autoridad municipal procederá a la retirada inmediata de toda aquella señal que no esté debidamente autorizada o no cumpla las normas en vigor, corriendo los gastos de cuenta de los que la hubieran instalado o, subsidiariamente, de los beneficiarios de la misma.

IV. KAPITULUA. GELDITZEA ETA APARKATZEA

1. ATALA: Gelditzea

*26. artikulua.*

Geldialdia egin dela esango da ibilgailu bat pertsonak hartu edo lagatzeko edo zamalanetarako ibilgetzen bada. Geldialdia ez da inoiz bi minututik gorakoa izango, eta gidariak ezin izango du ibilgailua utzi.

*27. artikulua.*

Geldialdietan gidariak ezin izango du ibilgailua utzi; eta kasu bereziren batean ibilgailutik irteten bada, ibilgailua eskueran eduki beharko da. Bestalde, eskatzen dioten unean bertan, edo beharrezkoa baldin bada, ibilgailua erretiratu egin beharko du

*28. artikulua.*

Berariaz debekatuta ez dagoen gune eta herri-bide guztietan, zirkulazioa ahalik eta gutxien oztopatzen den tokietan egingo dira geldialdiak.

*29. artikulua.*

Zeharo debekatuta dago ondorengo lekuetan geldialdiak egitea.

29.1. Seinaleztatuta edo arau bidez debekatuta dagoen tokietan. Hala ere, geldialdia egin ahal izango da gaixorik edo ezinduta dauden bidaiariak jaso edo lagatzeko. Larrialdietako edo segurtasuneko zerbitzuek eta baimendutako ibilgailuek ere geldialdiak egin ahal izango dituzte.

29.2. Alkatetzako xedapenaren bidez lehentasunezkotzat edo trafiko intentsitate handikotzat jotzen diren bideetan, horretarako propio seinaleztatutako tokietan izan ezik.

29.3. Pertsonen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen den lekuetan.

29.4. Babesguneen, irlatxoen, erdibitzaileen, babeslekuen eta trafikoa bideratzen duten gainerako elementuen gainean.

29.5. Autoentzako pasabidearen seinalea behar bezala jarrita duten eraikinetan, baldin eta ibilgailuen sarrera-irteerak oztopatzen badira.

29.6. Pertsonei eraikinetatik irteten edo bertara sartzen uzten ez zaien lekuetan.

29.7. Espaloien, pasealekuen eta oinezkoak igarotzeko gainontzeko lekuen gainean.

29.8. Txirrindularientzako propio jarritako pasabideetan edo erreietan.

29.9. Herriko garraio publikoa gelditzeko eta aparkatzeko berariaz jarritako lekuetan.

29.10. Ezindu fisikoen ibilgailuentzat gordetako gune seinaleztatuetan.

29.11. Zerbitzu Publikoetako, erakunde ofizialetako eta larrialdi zerbitzuetako ibilgailuentzat gordetako gune seinaleztatuetan.

29.12. Ezindu fisikoak igarotzeko jaitsita dauden espaloietan.

29.13. Bihurguneetan, sestra-aldaketetan eta, arrisku larririk izan gabe, gainerako ibilgailuek geldit、uta dagoen ibilgailua gainditzeko behar adinako ikuspenik ez dagoen lekuetan.

29.14. Ertz, bidegurutze edo bide-banaketa batetik baino 5 metro baino hurbilago.

CAPITULO IV. DE LA PARADA Y ESTACIONAMIENTO

SECCION 1. De la Parada

*Artículo 26.*

Se entiende por parada toda detención de un vehículo con objeto de tomar o dejar personas o cargar y descargar cosas cuya duración no exceda de dos minutos, sin que el conductor pueda abandonarlo.

*Artículo 27.*

En las paradas, el conductor no podrá abandonar el vehículo y si lo hiciera excepcionalmente, habrá de tenerlo a la vista y retirarlo en el mismo momento en que sea requerido para ello o las circunstancias lo demanden.

*Artículo 28.*

En todas las zonas y vías públicas donde no esté expresamente prohibido, la parada se efectuará en los puntos donde menos perjuicios se produzcan a la circulación.

*Artículo 29.*

Queda prohibida totalmente la parada:

29.1. Donde así esté señalizado o prohibido reglamentariamente, excepto para tomar o dejar pasajeros enfermos o impedidos o que se trate de servicios de urgencia o seguridad y de vehículos autorizados.

29.2. En las vías declaradas de atención preferente o de alta intensidad de tráfico por disposición de la Alcaldía, excepto en los lugares señalizados al efecto, si los hubiere.

29.3. Donde se entorpezca la circulación de personas o vehículos.

29.4. Sobre los refugios, isletas, medianas, zonas de protección y demás elementos canalizadores del tráfico.

29.5. Obstruyendo los accesos de vehículos en inmuebles debidamente señalizados con el correspondiente vado.

29.6. Cuando se obstaculice la utilización normal del paso de salida o acceso de personas a un inmueble.

29.7. Sobre las aceras, paseos, y demás zonas destinadas al paso de peatones.

29.8. En los pasos o carriles reservados exclusivamente para ciclistas.

29.9. En las zonas destinadas para estacionamiento y parada de uso exclusivo para el transporte público urbano.

29.10. En las zonas señalizadas como reserva para vehículos de disminuidos físicos.

29.11. En las zonas señalizadas como reservadas para vehículos de servicio público, organismos oficiales y servicios de urgencia.

29.12. En los rebajes de acera para el paso de disminuidos físicos.

29.13. En las curvas, cambios de rasante y cuando la visibilidad sea insuficiente para que los demás vehículos puedan rebasarle, sin grave peligro, al que esté detenido.

29.14. A menos de 5 metros de una esquina, cruce o bifurcación.

29.15. Geldialdiaren ondorioz, maniobrak egin behar dituzten erabiltzaileek edo maniobrek eragindako erabiltzaileek seinaleak ezin ikusi dituzten lekuetan.

29.16. Martxaren kontrako noranzkoan.

2. ATALA. Aparkatzea

*30. artikulua.*

Aparkaldia egin dela esango da, ibilgailu bat bi minututik gora ibilgetzen bada, baldin eta ibilgetze hori zirkulazioak behartuta edo arauzko aginduren bat betetzeko egiten ez bada.

*31. artikulua.*

Ibilgailuak herrenkadan aparkatu beharko dira, hau da, galtzadaren paraleloan, besterik adierazten ez duen seinalerik ez badago, behinik behin. Zoruan markatutako perimetroaren barruan aparkatu beharko da, eta espaloitik ahalik eta gertuen, espaloirik gabeko kaleetan izan ezik. Kasu horietan, 10.4.6. artikuluan xedatutakoa beteko da.

*32. artikulua.*

Bestelako seinalerik egon ezean, uste izango da zirkulazioaren bi noranzko dituzten bideetan baimenduta dagoela herrenkadan aparkatzea, galtzadaren eskuinaldean eta martxaren noranzkoan. Noranzko bakarra duten bideetan era berean aparkatuko da, eta bidearen zabalerak trafikoa oztopatu gabe aparkatzen uzten baldin badu, ezkerraldean ere aparkatu ahal izango da.

*33. artikulua.*

Aparkatutako ibilgailuak ezin izango du trafikoa oztopatu. Horretaz gain, ezin izango ditu arriskuan jarri bideko gainerako erabiltzaileak, eta batez ere, ibilgailua lagatzeko modua zainduko du. Bestalde, arreta berezia jarriko da gidaria bertan ez dagoela ibilgailua martxan jar ez dadin. Hori dela-eta, gidariek beharrezkoak eta nahikoak diren neurriak hartuko dituzte. Era berean, ibilgailua berez edo beste batzuek eraginda abian jarri delako sortzen diren arau-hausteen arduradun izango dira. Azken kasu honetan, abian jartzea ageriko bortizkeriaren edo indarraren ondorio bada, ez da erantzukizunik eskatuko.

*34. artikulua.*

Ibilgailua aparkatzean, gainerako erabiltzaileei ahalik eta toki gehien lagatzeko ardura izango da.

*35. artikulua.*

Herri bideetan ezin izango dira motordun ibilgailuetatik banatutako atoiak aparkatu, ezta autobusik, traktorerik, karabanarik eta 3.500 kilotik gorako baimendutako pisua duen ibilgailurik ere, berariaz baimendutako esparruetan, tokietan eta garaietan izan ezik. Agindu hau betetzen ez bada, arau-hauste arina egingo da.

*36. artikulua.*

Elementu mugikorren edo gontzen ondoan ere ezin izango da aparkatu, larrialdietako eta zerbitzuetako pasabideak baitira.

*37. artikulua.*

Debekatuta dago ondoren zehaztuko diren kasuetan eta lekuetan aparkatzea:

37.1. Debeku seinaleak dauden lekuetan edo arau bidez debekatutako lekuetan.

37.2. Ibilgailuak gelditzea debekatuta dagoen lekuan.

29.15. En los lugares donde se impida la visibilidad de la señalización a los usuarios a quienes les afecte u obligue a hacer maniobras.

29.16. En sentido contrario al de la marcha.

SECCION 2. Del Estacionamiento

*Artículo 30.*

Se entiende por estacionamiento toda inmovilización de un vehículo cuya duración exceda de dos minutos, siempre que no esté motivada por imperativo de la circulación o para cumplir algún precepto reglamentario.

*Artículo 31.*

Los vehículos deberán estacionar en fila, esto es, paralelamente a la calzada, salvo señalización en otro sentido, dentro del perímetro marcado en el pavimento y tan próximos a la acera como sea posible, excepto en las calles sin acera, en las que se estará a lo dispuesto en el artículo 10.4.6.

*Artículo 32.*

En ausencia de otra señalización se entenderá que, en las vías de doble sentido de circulación, está autorizado el estacionamiento en línea, en el lado derecho de la calzada, según el sentido de la marcha. En las vías de un solo sentido de circulación se estacionará de la misma forma, y solo en los casos en que la anchura de la vía permita hacerlo sin obstaculización, podrá estacionarse también en el lado izquierdo.

*Artículo 33.*

El estacionamiento deberá efectuarse de tal manera que el vehículo no obstaculice la circulación ni constituya un riesgo para el resto de los usuarios de la vía, cuidando especialmente la colocación del mismo, y evitando que pueda ponerse en movimiento en ausencia del conductor. A tal efecto los conductores tendrán que tomar las precauciones adecuadas y suficientes, y serán responsables de las infracciones que se puedan llegar a producir como consecuencia de un cambio de situación del vehículo al ponerse en marcha espontáneamente o por la acción de terceros, salvo que en este último caso haya existido violencia o fuerza manifiesta.

*Artículo 34.*

El estacionamiento se efectuará de forma que permita a los demás usuarios la mejor utilización del restante espacio libre.

*Artículo 35.*

No se podrán estacionar en las vías públicas remolques separados del vehículo motor, ni autobuses, tractores, caravanas o vehículos de peso máximo autorizado superior a 3.500 kgs, excepto en los términos, lugares y períodos autorizados expresamente. El incumplimiento de éste precepto tendrá la consideración de infracción de carácter leve.

*Artículo 36.*

Junto a los elementos móviles o pivotes, por constituir éstos, pasos de emergencias y servicios.

*Artículo 37.*

Está prohibido el estacionamiento de vehículos en los casos y lugares siguientes:

37.1. Donde así esté señalizado o prohibido reglamentariamente.

37.2. Donde esté prohibida la parada de vehículos.

37.3. Bigarren lerroan, baita lehenengo lerroan ere, oztoporen bat edo-eta babes-elementuren bat badago.

37.4. Herri bideko toki berean aparkatzea, jarraian bost egun baino gehiago.

37.5. Martxaren kontrako noranzkoan aparkatzea.

37.6. Baimendutako ibilgailuek debekatuta izango dute zamalanetarako gordetako lekuetan aparkatzea, baldin eta lan horiek egiten ari ez badira.

37.7. Baimenduta ez dauden ibilgailuek debekatuta izango dute zamalanetarako gordetako lekuetan aparkatzea.

37.8. Ikuskizun edo ekitaldi publikoak egiten diren eraikinen sarreretan, ikuskizun edo ekitaldi horiek egiten diren orduetan; izan ere, larrialdiren bat denean, eragozpenak sortzen baitira tupustean irteten den jendearentzat.

37.9. Udal Agintaritzak ordutegi murriztuarekin aparkatzeko egokitu dituen lekuetan, baimena ematen duen bereizgarria jarri gabe; edo bereizgarria jartzen baldin bada, ibilgailua Udal Ordenantzan ezarritako denbora baino luzaroago aparkatzen baldin bada.

37.10. Behar bezala aparkatuta dauden ibilgailuen irteera oztopatuz aparkatzen bada.

37.11. Obrak, garbiketa lanak, ekitaldi publikoak eta kirol ekitaldiak direla-eta aldi baterako seinaleztatu diren lekuetan.

## III. TITULUA
## IV. BIDE PUBLIKOETAN EGITEN DIREN JARDUERAK

### I. KAPITULUA. ZAMALANAK

*38. artikulua.*

Ondoren zehaztuko diren ibilgailuek besterik ez dute aparkatu ahal izango zamalanak egiteko gordetako lekuetan eta horretarako ezarritako orduetan: Beraien ezaugarri teknikoak direla medio, salgaiak garraiatzeko diseinatuta daudenak; edo ezaugarri horiek izan gabe, aurreko haizetakoan agintaritza eskudunak emandako Garraio Txartela ageriko tokian dutenak.

*39. artikulua.*

Zamalanak horretarako izendatutako tokietan egingo dira, eta dagokion seinalean ageri den ordutegian.

*40. artikulua.*

Zamalanak honako toki hauetan egingo dira.

a) Lokalaren barrualdean, irekiera edo instalazio baimenean berariaz hori eskatzen bada, eta baimenaren iraunaldiak indarrean jarraitzeko baldintza hori betetzea eskatzen badu, edo garraiatutako salgaiaren izaera, bolumena, pisua edo arriskugarritasuna dela-eta, horrela jardutea ezinbestekoa bada.

b) Zeregin horretarako gordetako lekuetan, dagokion seinalean ageri den ordutegiaren barruan.

c) Zamalanak zeregin horretarako gordetako tokietan, egunetan eta orduetan egin ahal izateko berariazko baimena izan beharko da.

*41. artikulua.*

Udalerriaren barruan egiten diren zamalanei buruzko araudia Alkatetza-Lehendakaritzako Dekretu bidez garatu ahal izango da.

37.3. En doble fila, ni aún cuando la primera esté ocupada por un obstáculo y/o elemento de protección.

37.4. En un mismo lugar de la vía pública durante más de cinco días consecutivos.

37.5. En sentido contrario al de la marcha.

37.6. Los vehículos autorizados, en las zonas señalizadas como reserva de carga y descarga de mercancías, cuando no se realicen tales tareas.

37.7. Los vehículos no autorizados, en las zonas señalizadas como reserva de carga y descarga de mercancías.

37.8. Delante de los accesos de edificios destinados a espectáculos o actos públicos, en las horas de celebración de los mismos ya que con ello se resta facilidad a la salida masiva de personas en caso de emergencia.

37.9. En los lugares habilitados por la Autoridad Municipal como de estacionamiento con limitación horaria, sin colocar el distintivo que lo autoriza o cuando colocado el distintivo se mantenga estacionado el vehículo en exceso sobre el tiempo máximo permitido por la Ordenanza Municipal

37.10. En condiciones que dificulten la salida de otros vehículos estacionados correctamente.

37.11. En los lugares señalizados temporalmente por obras, limpieza, actos públicos o manifestaciones deportivas.

## TITULO II
## DE LAS ACTIVIDADES EN LA VIA PÚBLICA

### CAPITULO. DE LA CARGA Y DESCARGA

*Artículo 38.*

Solamente podrán estacionar en las zonas reservadas para labores de carga-descarga y en el horario limitado para ello, los vehículos que por sus características técnicas estén diseñados para el transporte de mercancías o, los que no teniendo tales, presenten en el parabrisas delantero Tarjeta de Transporte expedida por la autoridad competente.

*Artículo 39.*

Las labores de carga y descarga se realizarán dentro de las zonas reservadas a tal efecto, y durante el horario establecido en la señalización correspondiente.

*Artículo 40.*

La carga y descarga de mercancías se realizará:

a) En el interior del local, cuando su licencia de apertura o instalación así lo exigiere expresamente, y supusiere condición del mantenimiento de la vigencia de aquella, o cuando la naturaleza de la mercancía transportada, su volumen, peso o peligrosidad así lo exigieren.

b) En las zonas reservadas para este fin, dentro del horario reflejado en la señalización correspondiente.

c) Únicamente se permitirá la carga y descarga fuera de las zonas reservadas, en los días, horas y lugares que se autoricen especialmente.

*Artículo 41.*

La normativa relativa a las operaciones de carga y descarga dentro del municipio podrá ser desarrollada mediante Decreto de la Alcaldía Presidencia.

*42. artikulua.*

Ondoren zehaztuko diren ibilgailuek besterik ez dute aparkatu ahal izango zamalanak egiteko gordetako lekuetan eta horretarako ezarritako orduetan: Beraien ezaugarri teknikoak direla medio, salgaiak garraiatzeko diseinatuta daudenak; edo ezaugarri horiek izan gabe, aurreko haizetakoan agintaritza eskudunak emandako Garraio Txartela ageriko tokian dutenak.

*43. Artikulua.*

Hala ere, baimendutako tokietatik eta orduetatik kanpo, zamalanak egin ahal izango dira, baldin eta auzotarrei eta bideko inolako erabiltzaileei ere inolako eragozpenik sortzen ez bazaie.

*44. artikulua.*

Ezin izango da zamalanik egin gelditzea debekatuta dagoen toki guztietan.

*45. artikulua.*

Zamalanetako salgaiak, materialak edo objektuak ez dira lurrean utziko. Aitzitik, zuzenean eramango dira dauden eraikinetik ibilgailura, edo alderantziz.

*46. artikulua.*

Zamalanak egiterakoan behar adinako arreta jarri beharko da alferrikako zaratarik ez egiteko, eta gainera, bide publikoa garbi utzi beharko da.

*47. artikulua.*

Salgaiak espaloitik gertuen dagoen aldetik atera eta sartuko dira. Beharrezkoak diren baliabideak eta langileak jarriko dira, lan hori ahalik eta azkarren egiteko. Era berean, oinezkoen nahiz ibilgailuen zirkulazioa ez oztopatzeko ahalegina egingo da.

*48. artikulua.*

Zamalanak inguruko pertsonentzat edo ondasunentzat arriskutsuak baldin badira, behar bezala seinaleztatuko dira, eta Udaltzaingoak ezarritako baldintzetan egin beharko dira.

*49. artikulua.*

Zamalanak egiteko lekuetan, ezin izango dira aparkatuta utzi zeregin horretan ari ez diren ibilgailuak.

## II. KAPITULUA. HERRI-BIDEA OKUPATZEA

### 1. ATALA. Arau Orokorrak

*50. artikulua.*

Debekatuta dago bide publikoan edukinontziak, mahai eta aulkiak, kioskoak, salmahaiak edo beste edozein oztopo edo objektu jartzea, aldez aurretik, Udalaren baimena izan gabe, eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko behar bezala babestu, seinaleztatu eta argiztatu gabe. Halaber, dagokion baimenean ezartzen diren arauak bete beharko dira.

*51. artikulua.*

Ondoren zehaztutako inguruabarren bat gertatzen bada, Udal agintaritzak oztopo horiek kenduko ditu ofizioz, eta gastuak interesatuen kontura izango dira.

1. Ezin izango da bide publikoa oztopatu, ezinbesteko baimena lortzen ez bada.

*Artículo 42.*

Solamente podrán estacionar en las zonas reservadas para labores de carga-descarga y en el horario limitado para ello, los vehículos que por sus características técnicas estén diseñados para el transporte de mercancías o, los que no teniendo tales, presenten en el parabrisas delantero Tarjeta de Transporte expedida por la autoridad competente

*Artículo 43.*

No obstante, podrá permitirse la carga y descarga fuera de las horas y/o zonas autorizadas cuando no genere molestias a los vecinos ni a los demás usuarios de la vía.

*Artículo 44.*

La carga y descarga nunca podrá efectuarse en los lugares que con carácter general esté prohibida la parada.

*Artículo 45.*

Las mercancías, materiales u objetos procedentes de la carga y descarga, no se dejarán en el suelo, sino que se trasladarán directamente del inmueble al vehículo o viceversa.

*Artículo 46.*

Las operaciones de carga y descarga tendrán que realizarse con las debidas precauciones para evitar ruidos innecesarios y con la obligación de dejar limpia la vía pública.

*Artículo 47.*

Las mercancías se cargarán y descargarán por el lado del vehículo más cercano a la acera, utilizando los medios necesarios y personal suficiente para agilizar la operación y procurando no dificultar la circulación tanto de peatones como de vehículos.

*Artículo 48.*

En caso de que las operaciones de carga y descarga supongan riesgo para la integridad de personas o daños en los bienes, aquéllas se señalizarán debidamente, en las condiciones que se determinen por la Policía Municipal.

*Artículo 49.*

No podrán permanecer estacionados, en las zonas habilitadas para carga y descarga, vehículos que no estén realizando dicha actividad.

## CAPITULO II. DE LAS OCUPACIONES DE LA VIA PÚBLICA

### SECCION 1. Normas generales

*Artículo 50.*

Se prohíbe la colocación en la vía pública de contenedores, veladores, quioscos, tenderetes o cualquier obstáculo u objeto sin previa autorización municipal y sin que esté debidamente protegido, señalizado e iluminado de modo suficiente para garantizar la seguridad de los usuarios y conforme a las normas que al efecto se establezcan en la oportuna autorización.

*Artículo 51.*

La autoridad municipal procederá de oficio a la retirada de los obstáculos, con los gastos a cargo de los interesados, cuando se dé alguna de las siguientes circunstancias:

1. No hayan obtenido la correspondiente autorización.

2. Ezinbesteko baimenaren indarraldia iraungi bada.

3. Baimenean finkatutako baldintzak bete ez badira.

4. Baimena emateko kontuan izan ziren arrazoiak desagertu badira.

5. Horren ardura duen funtzionarioak baimena erakusteko eskatu eta baimen hori erakusten ez bada.

*52. artikulua.*

Era berean, oztopo horiek erretiratu egingo dira, baldin eta segurtasun, osasun eta garbitasun arrazoiak direla medio, oztopo horiek kentzea beharrezkoa bada; edo egin beharreko obren, ikuskizunen, behar bezala baimendutako segizioen joan-etorrien eta antzeko suposamenduen ondorioz, oztopo horiek erretiratzea behar bezala justifikatuta baldin badago.

*53. artikulua.*

Edukinontziak, mahaiak eta aulkiak, kioskoak, salmahaiak, edukinontzi gisa erabilitako ibilgailuak eta gainerako hiri elementuak gordetako aparkalekutzat joko dira, galtzadan baldin badaude.

2. ATALA. Herri-bideetako obrak eta zerbitzuak

*54. artikulua.*

Ordenantza honen xede diren bide publikoetako trafiko askeari eragiten dioten obrak egin nahi dituzten kontratistek edo partikularrek obra horiek seinaleztatu eta balizatu beharko dituzte obrek irauten bitartean, horretarako, seinaleztapen elementuei buruzko araudia, Ordenantza honen hurrengo paragrafoetan jasota dagoena, bete beharko dute.

*55. artikulua.*

Bide-publikoan obrak egin behar dituztenek aldez aurretik izan beharko dute Udalaren baimena. Horretaz gain, Hirigintza Saileko bulegoan plegu bat aurkeztu beharko dute obretan instalatu beharreko seinaleen ezaugarrien eta edukiaren berri emateko. Udaltzaingoak erabakiko du neurri horiek aski diren ala ez. Gatazkaren bat baldin badago, Udaltzaingoaren iritzia gailenduko da.

*56. artikulua.*

Obra finkoa ez bada, eta kalean zehar jarraipena badu, obra zuzendariak egokitzat jotzen dituen aldaketak eta gehigarriak egin ahal izango ditu zati bakoitzean. Aldaketa horiek egin bezain laster, Udaltzaingoari emango dio horren berri; aldaketa horiek gainbegira ditzan.

*57. artikulua.*

Ordenantza honen xede diren bideetan ezin izango da obrarik hasi, baldin eta beharrezko seinaleak, balizak eta babesak jarri ez badira.

*58. artikulua.*

Seinale, baliza edo babes horiek jarri dituenak aldatu edo kendu ere egin beharko ditu, horiek jartzera behartzen zuen oztopoa aldatzen edo desagertzen baldin bada. Seinaleak beharrezkoak ez diren une berean kendu beharko dira, eta batez ere, gaueko orduetan eta jaiegunetan.

2. Haya vencido el plazo de la autorización correspondiente.

3. Se hayan incumplido las condiciones fijadas en la autorización.

4. Hayan desaparecido las circunstancias que motivaron la autorización.

5. No presentar la correspondiente autorización al funcionario que, encargado para ello, se la reclame.

*Artículo 52.*

Procederá asimismo la retirada de los obstáculos, cuando resulte necesario por razones de seguridad o higiénico-sanitarias, así como cuando lo requiera la realización de obras, espectáculos, paso de comitivas debidamente autorizadas y otros supuestos análogos que justifiquen motivadamente tal medida.

*Artículo 53.*

Los lugares reservados para la colocación de contenedores, veladores, quioscos, tenderetes, vehículos utilizados como contenedor y demás elementos urbanos tendrán la condición de reservas de estacionamiento si estuvieran en la calzada.

SECCION 2. Obras y servicios en la vía pública

*Artículo 54.*

Los contratistas o particulares que realicen obras que afecten a la libre circulación en las vías públicas objeto de esta Ordenanza, deberán señalizarlas y balizar durante el período de realización de las obras de acuerdo a la normativa contenida en los párrafos siguientes de esta Ordenanza relativos a elementos de señalización.

*Artículo 55.*

Quienes vayan a ejecutar obras en la vía pública, y previa licencia municipal otorgada para ello, deberán presentar en la Oficina de Urbanismo un pliego conteniendo las características y contenido de la señalización a instalar en ellas. La suficiencia de estas medidas quedará a criterio de la Policía Municipal, cuya opinión prevalecerá en caso de conflicto.

*Artículo 56.*

Cuando la obra no sea fija sino que tenga una continuidad a lo largo de la misma vía, el director de obra podrá introducir sobre el proyecto inicial las modificaciones y ampliaciones que considere oportunas y adecuadas a cada tajo, debiendo informar de inmediato a la Policía Municipal para supervisar tales variaciones.

*Artículo 57.*

No podrán iniciarse actividades de obra que afecten a las vías objeto de esta Ordenanza, sin que se haya colocado la correspondiente señalización, balizamiento y, en su caso, defensa.

*Artículo 58.*

Esta señalización, balizamiento o defensa deberán ser modificadas e incluso retiradas por quien las colocó tan pronto como varíe o desaparezca el obstáculo que la motivó, y ello cualquiera que fuere el momento del día en que no resultaran necesarias, y en especial en horas nocturnas y días festivos.

*59. artikulua.*

Obrak egiten dituen kontratistak, partikularrak edo erakundeak izango du seinaleak, balizak edo babesak eskuratu, jarri, zaindu eta kentzeko ardura.

*60. artikulua.*

Obra bukatu ostean eta obra entregatu aurretik, garbiketa orokorra egingo da, eta sobera edo botata gelditu diren materialak, eta bermearen indarraldian ezinbestekoak ez diren lanabes, obra-hondakin, obra lagungarri, instalazio, biltegi eta eraikin guztiak kendu egingo dira. Garbiketa hau bidearen jabari, zortzapen eta ukipen eremuetan ere egin beharko da, baita aldi baterako okupatu diren lursailetan ere. Bai batzuk, bai besteak, obra hasi aurretik zeuden bezala utzi beharko dira, edo ingurukoak dauden egoera bertsuan.

*61. artikulua.*

Baimenaren titularrak izango du mugarriak eta seinaleak behar bezala mantentzeko eta funtzionatzeko ardura. Era berean, titularrak bere kontura jarriko ditu obrak hasi aurretik zeuden seinaleak, behin lanak bukatzen direnean.

*62. artikulua.*

Indarrean dagoen Zirkulaziorako Araudi Orokorrean ageri ez diren seinaleak ezin izango dira erabili. Legendaren bat duten seinaleak galtzadatik kanpo jartzen badira, ez dute orpoz orpo jarraitu beharko Zirkulaziorako Araudi Orokorrean ezarritakoa, kartel hori jarriko den tokiak dituen inguruabar zehatzetara egokitu ahal izateko.

Gutxieneko seinale kopuru bat jarriko da, gidari zentzudunak, baldintza normaletan, beharrezkoak diren neurriak hartu edo beharrezkoak diren maniobrak egin ahal izan ditzan. Era berean, gidariaren arreta ez oztopatzeko ahalegina egingo da, eta horregatik, oso ageriko mezua duten seinaleak ez dira jarriko.

3. ATALA. Obrak seinaleztatzea.

*64. artikulua.*

Galtzadaren zati bat hartzen duten obra-seinaleek, gutxienez, honako osagai hauek izango dituzte:

«Obretako» arrisku-seinalea (P-18).

Errepidean erabili ezinik gelditzuko den zatia aurretik mugarrituko duen hesia.

64.1. «Obretako» plaka arrazoizko distantzia batean jarri beharko da, betiere, bide-zatiaren ikuspenaren eta trafikoaren benetako abiaduraren arabera. Bestalde, seinalearen eta hesiaren artean jarri behar diren seinale osagarrien kopurua ere izango da kontuan.

64.2. Gutxienezko seinaleztapena argitzeko, osatzeko edo azpimarratzeko honako osagai hauek gehitu ahal izango dira, inguruabarren arabera:

a) Abiadura murrizketa mailakatua, 30 kilometro orduko koskarekin. Murrizketa errepide horretarako ezarritako abiadurarekin hasi, eta beharrezkoa izanez gero, erabat gelditzeko aginduarekin bukatuko da (R-01).

b) Abiadura mugatzeko lehendabiziko seinalea «Obretako» arriskuagatiko seinalea jarri aurretik kokatu ahal izango da.

c) Ukitutako inguruan zirkulazioak izango duen araubidea (P- 25. R-6. R-5. R-305).

*Artículo 59.*

Tanto la adquisición como colocación, conservación y retirada de señalización, balizamiento o defensa de las obras serán a cuenta del contratista, particular o entidad que las realice.

*Artículo 60.*

Una vez terminada la obra, y antes de su entrega, se procederá a la limpieza general, retirando los materiales sobrantes o desechados, herramientas, escombros, obras auxiliares, instalaciones, almacenes y edificaciones que no sean precisos para la conservación durante el plazo de garantía. Esta limpieza se extenderá a las zonas de dominio, servidumbre y afección de la vía, y también a los terrenos que hayan sido ocupados temporalmente, debiendo quedar unos y otros en situación análoga a como se hallaban antes del inicio de la obra o similar a los de su entorno.

*Artículo 61.*

El mantenimiento y el correcto funcionamiento de los acotamientos y señalización, así como la reposición de las señales anteriormente existentes, una vez finalizadas las obras, serán ejecutados por el titular de la licencia, y a su costa.

*Artículo 62.*

No podrán emplearse señales distintas de las que figuren en el vigente Reglamento General de Circulación. Aquellas que contengan leyenda y vayan situadas fuera de la calzada podrán diferir de lo establecido en el R.G.C. en aras de facilitar la adaptación a las circunstancias concretas de lugar donde se prevea colocar.

Deberá emplearse un número mínimo de señales que permita al conductor consciente tomar las medidas o efectuar las maniobras necesarias en condiciones normales con comodidad, procurando no recargar la atención del conductor con señales con un mensaje tan evidente que, evitándolas, el conductor pueda formarse.

SECCION. 3. Señalización de obras

*Artículo 64.*

Toda señalización de obras que exija la ocupación de al menos, parte de la calzada se compondrá como mínimo de:

— Señal de peligro «Obras» (P-18).

— Valla que delimite frontalmente la zona no utilizable de la carretera.

64.1. La placa de «Obras» deberá estar a una distancia prudencial, siempre en función de la visibilidad del tramo y de la velocidad real del tráfico, así como del número de señales complementarias que sea necesario colocar entre señal y valla.

64.2. Para aclarar, complementar o intensificar la señalización mínima podrán añadirse, según las circunstancias, los siguientes elementos:

a) Limitación progresiva de la velocidad en escalones máximos de 30 km/h. desde la determinada para esa carretera hasta la detención total si es necesario (R-01).

b) La primera señal de limitación puede situarse previa a la de peligro «Obras».

c) Aviso de régimen de circulación en la zona afectada (P-25. R-6. R-5. R-305).

d) Gerta litezkeen desbideratzeetan ibilgailuei nondik joan behar duten esatea (R-400c).

e) Hartutako ingurua luzetara mugatzea.

64.3. Abiadura muga ez da kasuan kasuko inguruabarrek segurtasun baldintza normalen barruan eskatzen dutena baino baxuagoa izango.

64.4. Okupatutako norabide bakarreko tarte-une txandakatuaren ikuspena eskasa baldin bada, edo tarte-une hori intentsitate handiko bideren batean badago, ezinbestekoa izango da trafikoa langileen bidez arautzea. Langileek, une eta toki horretan ikusteko modukoak izango diren eskuko seinaleak izango dituzte. Horien ordez, txandakako semaforoak instalatu ahal izango ditu enpresak.

64.5. Arriskuak edo oztopoak alboetatik mugatzeko ondorengoak erabili ahal izango dira: Konoak, baliza-konoak edo seinaleztatzeko zinta txandakatua. Horiek horrela, debekatuta egongo da, zeregin horretarako, obretako gaiak erabiltzea, hala nola, zintarriak, hondar-piloak, bidoiak, e.a.

64.6. Seinale guztiak gauez ere argi eta garbi ikusteko modukoak izango dira, ondorioz, erreflektagarriak izan beharko dira.

64.7. Hesiek ertzetan berezko argi gorriak izan beharko dituzte beti. Argi horiek martxaren norakoan jarri beharko dira. Hesiak galtzadaren erdian baldin badaude, eta zirkulazioa bi norakoetarako baldin bada, ertzetako argiak horiak izango dira.

4. ATALA. Edukinontziak

*65. artikulua.*

Materiala hornitzeko edo obra-hondakinak biltzeko edukinontziak jartzeko Udalaren baimena izan beharko da aldez aurretik, eta aparkatzeko debekurik edo ordu mugarik ez dagoen lekuetan jarri beharko dira. Edukinontziak, bestalde, ez dira behar bezala aparkatuta dauden ibilgailuek osatzen duten lerrotik kanpo irtengo. Justifikatutako arrazoiak direla medio, horrela jardutea ezinezkoa izanez gero, Hirigintza Sailak emandako baimena ez ezik, Udaltzaingoak egin duen aldeko txostena ere izan beharko da.

*66. artikulua.*

Edukinontzi horiek olan batez estalita egon beharko dute, lan orduetatik kanpo aparkatuta daudenean, baita garraiatzen dituztenean ere. Horri esker, inork ezin izango du bertara ezer bota, eta kaletik ere ezin izango da bertan utzita dauden materialak ikusi, eta era berean, haizearen eta gizalegerik gabeko pertsonen ondorioz, ez da barruko materiala kalean zehar barreiatzeko arriskurik sortuko.

5. ATALA. Kirol probak - Kultur ekitaldiak - Jai herrikoiak eta antzekoak

*67. artikulua.*

Kirol, kultura eta jai arloko ekitaldi guztiek eta antzekoek Udalaren baimena izan beharko dute, galtzadari eragiten badiote. Horretaz gain, ekitaldia egiteko eska daitezkeen gainerako baimenak izan beharko dituzte.

*68. artikulua.*

Dagokion Udal sailaren aurrean tramitatutako baimena eskuratzeko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

a) Une oro, jabetzara sartzen uztea, eta larrialdietako ibilgailuei igarotzen uztea.

d) Orientación de los vehículos por las posibles desviaciones (R-400c).

e) Delimitación longitudinal de la zona ocupada.

64.3. El límite de velocidad no debe ser inferior al que las circunstancias del caso exijan, dentro de las condiciones normales de seguridad.

64.4. Cuando el tramo de sentido único alterno ocupado presente deficiencias de visibilidad o se encuentre en vías de alta densidad de tráfico, aunque ésta sea temporal, será preciso regular el tráfico por medio de operarios provistos de señalización manual que resulte visible para el momento y lugar, o semáforos alternativos instalados por la empresa.

64.5. Para limitar lateralmente los peligros u obstáculos podrán utilizarse conos, baliconos, vallas, o cinta señalizadora alterna, prohibiéndose el uso de elementos de obra, tales como bordillos, montones de arena, bidones, etc.

64.6. Todas las señales serán claramente visibles durante la noche y deberán, por tanto, ser reflectantes.

64.7. Las vallas llevarán siempre en sus extremos luces propias de color rojo en el sentido de la marcha. Cuando estén en el centro de la calzada y con circulación en ambos sentidos, llevarán luces amarillas en ambos extremos.

SECCION 4. Contenedores

*Artículo 65.*

Los contenedores para acopios de materiales o para recogida de escombros, y previa autorización municipal, sólo podrán colocarse en las vías sin prohibición de estacionamiento o limitación de horario para el mismo, y se hará sin sobresalir de la línea exterior formada por los vehículos correctamente estacionados. Cuando por razones justificadas esto no pudiera ser así, será preceptivo, además de la autorización de la Oficina de Urbanismo, un informe favorable de la Policía Municipal.

*Artículo 66.*

Estos contenedores deberán permanecer tapados con una lona tanto cuando se encuentren estacionados y fuera de las horas de trabajo como cuando fueran trasladados, de manera que nadie pueda introducir nada en ellos, ni los materiales depositados en su interior puedan ser vistos ni esparcidos por la vía pública, bien por efecto del viento o por personas desaprensivas.

SECCION 5. Pruebas deportivas, Actos culturales, Fiestas populares y análogos

*Artículo 67.*

Todos aquellos actos de carácter deportivo, cultural, festivo o similar que afecten a la calzada deberán estar provistos del correspondiente permiso del ayuntamiento, sin perjuicio de otras autorizaciones exigibles para la realización del evento.

*Artículo 68.*

La autorización tramitada ante el departamento municipal, se concederá condicionada a:

a) Que en todo momento se mantenga el acceso a la propiedad y se permita el paso de vehículo de urgencia.

b) Ekitaldi guzti horiek bukatutakoan, bideak libre eta garbi uztea. Baimenaren titularrek galtzaden eta espaloien zoladuran egindako kalteengatik erantzun beharko dute, eta berehala kendu beharko dituzten ekitaldi horretarako jarri dituzten instalazio edo plataforma guztiak.

*69. artikulua.*

Udaltzaingoari baimen horien berri eman beharko zaio.

*70. artikulua.*

Aipatutako baimenak prekarioan emango dira, eta horien ondorioz, ez da inolako eskubiderik sortuko onuradunen alde. Hori dela-eta, trafikoak, arriskuak edo beste mota batzuetako inguruabarrek aholkatzen badute, baimenak indargabetu ahal izango dira.

*71. artikulua.*

Ekitaldiak antolatzen dituztenek beharrezko baimenak aurkezten ez badituzte, Udaltzaingoak bertan behera utzi ahal izango ditu ekitaldi horiek.

*72. artikulua.*

Tankera honetako ekitaldiak egin ahal izateko, erakunde antolatzaileak ekitaldi horiek burutzeko eta ekitaldien babesa eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak jarri beharko ditu. Horretaz gain, Udaltzaingoak interesa izan dezake neurri horiek gehitu edo aldatu ahal izango ditu; hartara, ibilgailuen eta oinezkoen trafikoari kalterik ez egiteko.

*73. artikulua.*

Ekitaldiak antolatzen dituen pertsonak edo erakundeak izango du, ekitaldiak bukatu arte, neurri horiek mantentzeko ardura. Horrela egin ezean, Udaltzaingoak ekitaldi horiek bertan behera utzi ahal izango ditu.

*74. artikulua.*

Kultur, kirol, zinema ekitaldiak eta antzekoak antolatzeko aparkalekua aldi baterako gorde nahi dutenek Elgoibarko Udalari eskatu beharko diote dagokion baimena. Udaltzaingoari baimen horren kopia bat bidaliko zaio, jakinaren gainean egon dadin

6. ATALA. Herri-bideetan debekatutako erabilerak.

*75. artikulua.*

Bide publikoetan ezin izango dira beste oinezko batzuentzat edo partaideentzat beraientzat arriskutsuak izan daitezkeen jolasak edo olgetak egin.

*76. artikulua.*

Oinezkoen edo ibilgailuen joan-etorria eragoz dezaketen ikusle pilaketak sor ditzaketen jaiak, jarduerak edo deialdiak egin ahal izateko, aldez aurretik, Udalaren baimena izan beharko da. Hala eta guztiz ere, ekintza burutzen den tokian dauden Agintaritzako Agenteen iritziz, sortu edo aurreikusi daitekeen kalteak baimena eman zen unean kontuan izan ziren aurreikuspenak gainditzen baditu, edo pertsonen edo ondasunen segurtasunerako arriskutsuak badira, emandako baimena indargabetu, eta ekitaldia bertan behera utzi ahal izango da.

*77. artikulua.*

Edozein esparru edo zerbitzutara sartzeko ilarak ordenatuak izan beharko dira. Barrura sartu nahi dutenak banaka jarri beharko dira, eraikinen fatxadetan barrena. Halaber, ezin izango dira galtzadara irten, eta libre utzi beharko dituzte etxebizitzetarako eta saltokietarako sarrerak. Ilara sortzen duen jardueraren erantzukizuna dutenek beharrezkoa duten ordenazerbitzua izan beharko dute gorabeherarik ez gertatzeko edo bidearen erabiltzaileei enbarazurik ez egiteko.

b) Que al término de todos los actos, las vías deberán quedar libres y expeditas, debiendo responder los titulares de la autorización de los desperfectos ocasionados en el pavimento de las calzadas y aceras y retirar de inmediato cualquier instalación o plataforma colocadas con motivo del acto celebrado.

*Artículo 69.*

De dichos permisos se dará traslado a la Policía Municipal.

*Artículo 70.*

Las autorizaciones citadas se conceden en precario, y no crean derecho alguno en favor de sus beneficiarios, por lo que podrán ser libremente revocados cuando las circunstancias del tráfico, riesgo y otras de análoga naturaleza así lo aconsejen.

*Artículo 71.*

Si por los organizadores de los eventos no se presentaran los correspondientes permisos la Policía Municipal podrá suspender las actividades citadas.

*Artículo 72.*

Para la celebración de este tipo de actividades, la entidad organizadora dispondrá de los medios materiales y humanos necesarios para llevar a efecto los eventos y garantizar la protección y seguridad de los mismos, pudiendo la Policía Municipal interesar el incremento o modificación de los adoptados para evitar perjuicios a la circulación rodada y peatonal.

*Artículo 73.*

La persona o entidad organizadora de los actos será la responsable de garantizar el mantenimiento de las medidas citadas hasta la finalización de los actos. En caso contrario, por la Policía Municipal se podrán suspender los mismos.

*Artículo 74.*

Los interesados en una reserva temporal de estacionamiento, con motivo de eventos culturales, deportivos, cinematográficos y análogos, deberán solicitarlo ante el Ayuntamiento. De dicha autorización se remitirá copia a la Policía Municipal, para su conocimiento.

SECCION 6. Usos prohibidos en las vías públicas

*Artículo 75.*

No se permitirán en las vías públicas los juegos o diversiones que puedan representar un peligro o molestia para otros transeúntes o para quienes lo practican.

*Artículo 76.*

Todos aquellos festejos, actividades o convocatorias que puedan generar aglomeraciones de público susceptibles de crear un estorbo al tránsito de peatones o vehículos, requerirán la previa autorización municipal. No obstante, cuando a juicio de los Agentes de la Autoridad presentes en el lugar se estime que el perjuicio causado o previsible supera las expectativas que motivaron la concesión de la autorización, suponiendo un riesgo para la integridad de las personas o bienes, podrán revocar en el acto el permiso y suspender el evento.

*Artículo 77.*

Las colas para el acceso a cualquier recinto o servicio deberán formarse ordenadamente, en fila de a uno, a lo largo de las fachadas de los inmuebles, sin invadir la calzada y dejando libres los accesos a viviendas y comercios. Los responsables de la actividad que genere la cola deberán disponer el necesario servicio de orden para prevenir incidentes o molestias a los usuarios de la vía.

*78. artikulua.*

Debekatuta dago salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak herrigunean zirkulatzea.

Salbuespenezko kasuetan, ibilgailu hauei herrigunera sartzen utziko zaie, baldin eta ibilgailu horiei sartzen uztea ezinbestekoa bada, ondoren aipatuko diren inguruabarretakoren bat gertatzen delako. Ibilgailuak ondoren zehaztuko diren zereginetarako bakarrik sartuko dira, urtarrilaren 31ko 74/92 Errege Dekretuak ezarritako era eta baldintzak kontuan izanik:

— Zamalanak egiteko eta salgaiak banatzeko.

— Behar bezala justifikatutako ezinbesteko arrazoiren bat dagoelako.

*79. artikulua.*

Debekatuta dago herri-bidean ibilgailuak garbitzea, baldin eta horretarako tokiren bat prestatzen ez bada. Agindu hau bete ezean, arau-hauste arin bat egingo da.

*80. artikulua.*

Debekatuta dago herri bidera edozein motatako hondakinak botatzea edo bertan lagatzea. Era berean, debekatuta dago geldi edo abian dauden ibilgailuetatik edozein motatako hondakinak jaurtitzea. Agindu hau bete ezean, arau-hauste arina egingo da.

## III. TITULUA
## PERTSONEN GARRAIOA

### 1. KAPITULUA. ESKOLA GARRAIOA ETA ADIN TXIKIKOENA

*81. artikulua.*

Ordenantza honen eraginetarako, eskola garraiotzat eta adin txikikoen garraiotzat joko da estatuko, autonomia erkidegoko edo foru legedian definitutakoa.

*82. artikulua.*

Udalerri barruan, eskola garraioari eta adin txikikoen garraioari dagozkion zerbitzuak eskaintzeko ezinbesteko baimenak eskuratu beharko dira.

*83. artikulua.*

Ibilgailuen edo zerbitzuaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoek Udalaren baimena eskatu beharko dute. Horretarako, eskabideari indarrean dagoen legediak eskatutako dokumentazioa erantsi beharko diote. Eskola garraioa eskaini nahi den kasuan proposatutako ibilbidea, egin nahi dituzten geldialdiak eta zerbitzua eskainiko duten ibilgailuak identifikatuko dituzten ibilgailuen matrikulak ere erantsi beharko dira.

*84. artikulua.*

Baimenak dagokion ikasturterako besterik ez du balioko; eta hasiera batean eman zen baimenean zehaztu ziren baldintzetakoren bat aldatzen bada, berriro eskatu beharko da baimena.

*85. artikulua.*

Geltokietan ezin izango da egon bidaiariak hartu edo lagatzeko beharrezkoa den denbora baino gehiago.

*Artículo 78.*

Queda prohibida la circulación por el casco urbano de los vehículos que transporten mercancías peligrosas.

Excepcionalmente, se permitirá la entrada de estos vehículos al casco urbano cuando sea estrictamente necesario por concurrir alguno de los siguientes supuestos, siempre que se realice a esos únicos efectos y de acuerdo con la forma y condiciones que establece el Real Decreto 74/92, de 31 de enero:

— Para la realización de operaciones de carga y descarga, distribución o reparto de mercancías.

— Por causa de fuerza mayor debidamente justificada.

*Artículo 79.*

Queda prohibida la limpieza de vehículos en la vía pública, salvo si se habilitase un lugar específico para tal fin. El incumplimiento de éste precepto tendrá la consideración de infracción de carácter leve.

*Artículo 80.*

Queda prohibido arrojar o abandonar en la vía pública cualquier tipo de residuo o arrojarlos desde los vehículos parados o en marcha. El incumplimiento de éste precepto tendrá la consideración de infracción de carácter leve.

## TITULO III
## TRANSPORTE DE PERSONAS

### CAPITULO 1. TRANSPORTE ESCOLAR Y DE MENORES

*Artículo 81.*

A efectos de esta Ordenanza, se entenderá como transporte escolar y de menores, el definido en la legislación estatal, autonómica o foral correspondiente.

*Artículo 82.*

La prestación del servicio de transporte escolar y de menores dentro del municipio estará sujeta a la obtención de las autorizaciones correspondientes

*Artículo 83.*

Tendrán que solicitar la autorización municipal las personas físicas o jurídicas titulares de los vehículos o del servicio, quienes adjuntarán a la instancia la documentación requerida por la legislación vigente y, en el caso del transporte escolar, el itinerario que propongan, las paradas que pretendan efectuar y las matrículas de identificación de los vehículos que vayan a realizar el servicio.

*Artículo 84.*

La autorización sólo será válida para el curso escolar correspondiente, y se tendrá que solicitar nueva autorización para cualquier modificación de las condiciones en que aquella fue otorgada inicialmente.

*Artículo 85.*

No se podrá permanecer en las paradas más tiempo que el necesario para recoger o dejar pasajeros.

*86. artikulua.*

Ibilgailuen antzinakotasuna, jarlekuen neurriak, jarleku bakoitzean joan daitekeen pertsona kopurua, ateen irekiera, takografoa, autobusen azterketa teknikoa, plaka adierazlea, e.a direla-eta, ikasleak eta adin txikikoak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuek abuztuaren 25eko 2296/83 Errege Dekretuak ezartzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.

*87. artikulua.*

Ibilgailuan ezinbestean haurrak zaintzeaz arduratuko den pertsona egoki bat egon beharko da. Pertsona hori behar bezala kreditatu beharko du garraiolariak edo zerbitzua antolatzen duen ikastetxeak. Ibilgailuan pertsona laguntzailea izatea ezinbestekoa denean, garraiolariari dagokio pertsona horren ekarpena egitea, non eta kontratuan ez den aipatzen zerbitzua antolatzen duen Ikastetxeari dagokiola ekarpen hori egitea.

Garraioa laguntzailerik gabe egiten bada, lehenik eta behin, garraiolariari eskatuko zaio dagokion erantzukizuna. Garraiolariak ez du erantzukizunik izango, baldin eta zigor-espedientean ageri bada laguntzailea jartzea zerbitzua antolatzen duen Ikastetxeari dagokiola. Kasu horretan erantzukizuna ikastetxearen aurka bideratuko da.

*88. artikulua.*

Eskola garraioan diharduten ibilgailuek, gehienez ere, 40 kilometro orduko abiaduran zirkulatu ahal izango dute udalerri barruan. Arestian ezarritako mugaz gain, ezinbestekoa izango da oro har jar daitezkeen seinaleek ezartzen dituzten muga baxuagoak errespetatzea.

*89. artikulua.*

Ezinbesteko aseguruei buruz indarrean dagoen legediak ezarritakoa betetzeaz gain, ikasleak edo adin txikikoak garraiatu ahal izateko aseguru osagarri baten babesa izan beharko da. Aseguru horrek inolako mugarik gabe estali beharko du garraiatutako pertsonek, garraioan erabilitako ibilgailuen erabileraren eta zirkulazioaren ondorioz, jasaten dituzten kalte-galerengatiko erantzukizun zibilaren zenbatekoa. Garraiolariari dagokio ezinbesteko aseguru hori kontratatzea.

*90. artikulua.*

Ikasleak eta adin txikikoak garraiatzeko ibilgailuak dituzten garraiolari guztiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte.

a) IATri dagokion txartela, indarrean dagoena eta behar bezala bideratutakoa, txartelaren bidez egiaztatuko da ibilgailuak azterketa teknikoari buruzko abuztuaren 25eko 2296/83 Errege Dekretua betetzen duela.

b) Ikasleak edo adin txikikoak garraiatzen dituzten ibilgailuen gidariek, gainera, kasu bakoitzean beharrezkoa den gidabaimenaren jabe izan beharko dute, eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusian kontrolerako izango den erregistro berezi batean inskribatu beharko da.

II. KAPITULUA. ESKATU AHALAKO GARRAIOA

*91. artikulua.*

Ordenantza honetan ezarritako ondorioetarako, eskatu ahalako garraiotzat joko da, gidariarena barne, 9 plazatik gorako kapazitatea duten ibilgailuen bidez egiten dena.

*Artículo 86.*

Las condiciones que deberán reunir los vehículos dedicados al transporte de Escolares y Menores serán las que refleja el Real Decreto 2.296/83, de 25 de agosto, referente a la antigüedad de los vehículos, dimensiones de los asientos, número de personas en cada asiento, apertura de puertas, tacógrafo, inspección técnica de autobuses, placa indicativa, etc.

*Artículo 87.*

Será obligatoria la presencia en el vehículo de una persona idónea, debidamente acreditada por el transportista o por el Centro Escolar organizador del servicio, encargada del cuidado de los niños. En los casos en que resulta obligatoria la presencia de acompañante, la aportación del mismo corresponderá al transportista, salvo cuando se especifique en el correspondiente contrato que la referida aportación corresponda al Centro Escolar organizador del servicio.

La exigencia de responsabilidad por la realización del transporte sin acompañante se dirigirá, en principio, siempre al transportista. Este quedará libre de dicha responsabilidad cuando en el correspondiente expediente sancionador justifique que la aportación del acompañante correspondía al Centro Escolar del servicio, en cuyo caso la exigencia de responsabilidad se dirigirá contra éste.

*Artículo 88.*

La velocidad máxima a la que podrán circular los vehículos de transporte escolar dentro del término municipal de Elgoibar, será de 40 km/h. La limitación establecida anteriormente se entenderá sin perjuicio de la obligatoriedad de respetar límites más bajos impuestos por las correspondientes señales que resulten de aplicación general.

*Artículo 89.*

Sin perjuicio del cumplimiento de la legislación vigente respecto a seguros obligatorios, todo transporte de escolares o menores deberá estar amparado por un seguro complementario que cubra sin limitación alguna de cuantía la responsabilidad civil por daños y perjuicios sufridos por las personas transportadas, derivados del uso y circulación de los vehículos utilizados en el transporte. La obligatoriedad de la contratación del referido seguro corresponderá al transportista.

*Artículo 90.*

Todo transportista con vehículos destinados al transporte escolar y de menores deberá presentar los siguientes documentos:

a) Tarjeta de ITV vigente y debidamente diligenciada, acreditativa de que el vehículo ha cumplido lo dispuesto en el Real Decreto 2.296/83, de 25 de agosto, sobre inspección técnica.

b) Los conductores de los vehículos que realicen transporte escolar o de menores deberán además de estar en posesión del permiso de conducir de la clase que en cada caso corresponda, figurar inscritos en un registro especial, que a efectos de control existirá en la Dirección General de Tráfico

CAPITULO II. TRANSPORTE DISCRECIONAL

*Artículo 91.*

A efectos de la presente Ordenanza, se entenderá por transporte discrecional de viajeros el efectuado por vehículos con capacidad superior a las 9 plazas, incluida la del conductor.

*92. artikulua.*

Udalerrian hasi edo-eta bukatuko den eskatu ahalako garraioa eskaintzeko Udalaren baimena izan beharko da.

*93. artikulua.*

Zerbitzuaren titular diren pertsona fisikoek edo juridikoek eskatu beharko dute Udalaren baimena. Pertsona horiek, eskaerarekin batera, indarrean dagoen legediak eskatutako dokumentazioa, proposatutako ibilbidea eta egin nahi dituzten geldialdiak aurkeztuko dituzte.

*94. artikulua.*

Emandako baimenak bertan ezarritako aldirako besterik ez du balioko. Eta baimena ematerako orduan kontuan izan zen baldintzetakoren bat aldatzen baldin bada, beste baimen bat eskatu beharko da.

*95. artikulua.*

Geltokietan ezin izango da egon bidaiariak hartu edo lagatzeko beharrezkoa den denbora baino gehiago.

III. KAPITULUA. GARRAIO PUBLIKOAREN GELDIALDIAK

*96. artikulua.*

Udal Administrazioak zehaztuko du garraio publikoko zerbitzu bakoitzak egin behar dituen geldialdiak zein tokitan egin behar diren eta zenbat denbora iraungo duten.

V. TITULUA
VI. ZIRKULAZIO ARAU BEREZIAK DITUZTEN GUNEAK

I. KAPITULUA. OINEZKOENTZAKO GUNEAK

*97. artikulua.*

Administrazio Publikoak ibilgailu guztiei edo ibilgailu batzuei plazaren, parkeren edo herri-bideren batean zirkulatzea, eta aparkatzea debekatzen badie, leku horiek oinezkoentzako gunetzat joko dira.

*98. artikulua.*

Oinezkoen guneetarako sarreretan, Udal Agintaritzak elementu mugikorrak jarri ahal izango ditu, ibilgailuak eragindako gunera sartu eta bertan ibil ez daitezen. Barrura sartzeko ezinbestekoa izango da oinezkoen gunera sartzeko baimena izatea.

*99. artikulua.*

Oinezkoentzako guneetan, ibilgailuak zirkulatzeko eta aparkatzeko debekuak honako ezaugarri hauek izango ditu:

1. Gunearen perimetroak zedarritutako bide guztiak edo bide batzuk bakarrik hartuko ditu.

2. Aldez aurretik ezarritako ordutegi batera mugatuko da, edo bestela, ez da ordu mugarik izango.

3. Finkoa izango da, edo asteko hainbat egunetan bakarrik egongo da indarrean.

*Artículo 92.*

La prestación del servicio de transporte discrecional, con origen y/o destino en el municipio, estará sometida a autorización municipal.

*Artículo 93.*

Habrán de solicitar autorización municipal las personas físicas o jurídicas titulares del servicio, las cuales adjuntarán a la solicitud, la documentación exigida por la legislación vigente, el itinerario propuesto y las paradas que pretendan efectuar.

*Artículo 94.*

La autorización sólo será vigente para el plazo que en la misma se establezca, habiendo de solicitar nueva autorización para cualquier modificación de las condiciones en las cuales fue concedida.

*Artículo 95.*

No se podrá permanecer en las paradas más tiempo que el necesario para recoger o dejar pasajeros.

CAPITULO III. PARADAS DE TRANSPORTE PÚBLICO

*Artículo 96.*

La Administración municipal podrá determinar los lugares y períodos de tiempo en que habrán de efectuarse las paradas destinadas a cada uno de los distintos servicios de transporte público.

TITULO IV
ZONAS CON REGULACION CIRCULATORIA ESPECÍFICA

CAPITULO I ÁREAS PEATONALES

*Artículo 97.*

Áreas peatonales son aquellas calles plazas, parques o vías urbanas en las que la Administración Municipal ha establecido la prohibición total o parcial de la circulación rodada y el estacionamiento de todos o algunos vehículos.

*Artículo 98.*

En la entrada a las áreas peatonales, la Autoridad Municipal podrá utilizar elementos móviles que impidan el acceso y circulación de vehículos por el interior de la zona afectada. Para rebasarlos es necesario disponer de la autorización para acceder al área peatonal.

*Artículo 99.*

En las áreas peatonales la prohibición de circulación y estacionamiento de vehículos podrá:

1. Comprender la totalidad de las vías que estén delimitadas por su perímetro o únicamente algunas.

2. Limitarse o no a un horario preestablecido.

3. Ser de carácter fijo o referirse solamente a determinados días de la semana.

*100. Artikulua.*

Ezarritako mugak edonolakoak direla ere, ez diete honako ibilgailu hauen zirkulazioari edo aparkaldiari eragingo:

1. Suhiltzaileen eta Salbamendu Zerbitzuetakoei, Poliziaren ibilgailuei, anbulantziei, eta oro har, larrialdietarako ibilgailuei.

2. Gaixoak edo pertsona ezinduak garraiatzen dituztenei.

3. Inguru horretan kokatuta dagoen garajeren batetik edo baimendutako aparkalekuren batetik irteten diren edo bertara sartzen diren ibilgailuei.

4. Baimendutako ibilgailuei, baldin eta horretarako baimendutako kaleetan eta orduetan zamalanak egiten badihardute.

5. Udal Agintaritzak emandako ebazpen justifikatuaren bitartez, debeku honetatik kanpo berariaz gelditzen diren ibilgailuei.

6. Hiletak, ezkontzak, bataioak, txangoak edo baimendutako ekitaldiak direla-eta, Foruen plazara joaten diren ibilgailuei. Ibilgailuak, gehienez ere, ekitaldia hasi baino 30 minutu lehenago joan ahal izango dira oinezkoen gunera; eta ekitaldia bukatu eta 30 minutura kendu beharko dituzte ibilgailuak bertatik.

*101. Artikulua.*

Udal Agintaritzak, dagokion Udal Ordenantzaren bitartez, oinezkoentzako guneetan ezarritako muga batzuetatik edo muga guztietatik salbuetsi ahal izango ditu bertan bizi diren herritarren edo bertan kokatuta dauden merkatarien ibilgailuak.

*102. Artikulua.*

Oinezkoentzako guneetan lehentasuna izango dute beti oinezkoek.

*103. Artikulua.*

Oinezkoentzako guneetan, espaloirik gabeko galtzadetan eta oinezkoak pilatzen diren bestelako lekuetan, ibilgailuetako gidariek oinezkoen ibilera normalera mugatuko dute abiadura. Beharrezkoa izanez gero, gelditu ere egingo dira, eta beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte istripurik gerta ez dadin.

## II. KAPITULUA. GORDETAKO BIDEAK ETA ERREIAK

*104. Artikulua.*

Udal agintaritzak hainbat errei edo bide gorde ahal izango ditu, hainbat ibilgailu mota bertatik ibil daitezen.

*105. Artikulua.*

Ibilgailu horientzat ezinbestekoa izango da izendatutako errei eta bideetatik zirkulatzea.

*106. Artikulua.*

Autoek, motozikletek, ziklomotoreek eta bizikletak ez diren gainerako elementu mugikorrek debekatuta dute bidegorrietan zirkulatu eta aparkatzea.

*Artículo 100.*

Cualquiera que sean las limitaciones establecidas, no afectarán a la circulación ni al estacionamiento de los siguientes vehículos:

1. Los del Servicio de Extinción de Incendios y Salvamento, los de la Policía, las ambulancias y, en general, los vehículos de emergencia.

2. Los que transporten enfermos o personas impedidas.

3. Los que surjan de un garaje o estacionamiento autorizado situado en la zona o se dirijan a él.

4. Los vehículos autorizados que efectúen labores de carga y descarga en las calles y a las horas en que así se autorice.

5. Los vehículos expresamente excluidos de esta prohibición por resolución justificada de la Autoridad municipal.

6. Los que con motivo de funerales, bodas, bautizos, excursiones o actos autorizados accedan a la Plaza de los Fueros, con un máximo de 30 minutos de antelación a su inicio y deberán retirar sus vehículos del área peatonal antes de pasados 30 minutos tras su finalización.

*Artículo 101.*

La Autoridad municipal mediante la correspondiente Ordenanza Municipal, podrá eximir de todas o algunas de las limitaciones establecidas en las áreas peatonales a los vehículos propiedad de ciudadanos residentes en las mismas o de comerciantes instalados en ellas.

*Artículo 102.*

En las áreas peatonales, se dará siempre prioridad a los peatones.

*Artículo 103.*

En las áreas peatonales, así como en las calzadas sin aceras y en otros lugares en que haya afluencia de viandantes, los conductores de los vehículos reducirán la velocidad al paso normal de los peatones, incluso hasta llegar a detenerse, y tomarán las precauciones necesarias para evitar accidentes.

## CAPITULO II. VIAS Y CARRILES RESERVADOS

*Artículo 104.*

Por la Autoridad municipal se podrán reservar determinados carriles o vías para la circulación exclusiva de ciertos tipos de vehículos.

*Artículo 105.*

La circulación por los carriles y vías reservadas será obligatoria para los vehículos a los que se destinan.

*Artículo 106.*

En los bidegorris queda prohibida la circulación y estacionamiento de automóviles, motocicletas, ciclomotores y todo elemento móvil distinto a las bicicletas, salvo vehículos autorizados.

V. TITULUA
ZIKLOMOTOREEN ZIRKULAZIOA

1. Ziklomotoreak

*107. Artikulua.*

Ziklomotoretzat hartuko dira ondoren zehaztuko diren ibilgailuak:

— Bi gurpildun ziklomotorea: Bi gurpildun ibilgailua; barne konbustiokoa bada, gehienez ere 50 zentimetro kubikoko zilindradako motorra duena, eta gehienez ere, 45 kilometro orduko abiada hartzen duena.

Hiru gurpildun ziklomotorea: Hiru gurpildun ibilgailua; barne konbustiokoa bada, gehienez ere 50 zentimetro kubikoko zilindradako motorra duena, eta gehienez ere, 45 kilometro orduko abiada hartzen duena.

— Kuadriziklo arinak: Lau gurpildun ibilgailuak, 350 kilotik beherako hutseko masa duena. Ibilgailu elektrikoen kasuan, ez da baterien masa sartzen. Ibilgailu horien gehienezko abiadura 45 kilometro ordukoa da eta motorraren zilindrada 50 metro kubikotik beherakoa izango da, baldin eta motorra leherketakoa bada. Ibilgailuen motorrak bestelakoak badira, gehienezko potentzia garbia 4 kilowattekoa edo hortik beherakoa izango da.

VII. TITULUA
VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA MAILAKETA EZAR DAITEZKEEN ZIGORRAK

KAPITULU BAKARRA. ARAU-HAUSTEAK

*108. Artikulua.*

Administrazioko hutsegitetzat joko dira Ordenantza honek arau-haustetzat jotzen dituen egintza eta hutsegite guztiak. Hala eta guztiz ere, kasu horietan martxoaren 2ko 339/90 Errege Dekretua eta bere arau xedapenak ezarri ahal izango dira; egintza edo hutsegite horiek lege penaletan jasotako delituak edo hutsegiteak diren kasuetan izan ezik. Kasu horietan Administrazioak ordena jurisdikzional eskudunaren esku utziko du erruduntasun-testigantza, eta zigor prozedurarekin jarraitzeari uko egingo dio, Agintaritza Judizialak epai irmoa ematen ez duen bitartean.

Ordenantza honen aurkako egintzak edo hutsegiteak administrazioko hutsegitetzat joko dira.

*109. Artikulua.*

Ordenantza honen aurka, edo arlo honen gaineko araudi orokorraren aurka egiten diren arau-hauste arin, larri eta oso larriak, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren Trafiko Zuzendaritzak finkatutako arau-hausteen eta zigorren taulan ezarritakoaren arabera sailkatuko dira. Ordenantza urtero eguneratuko da.

Ordenantza honetako 35., 79. eta 80. artikuluen aurka egindako arau-hausteak arestiko sailkapenetik kanpo geldituko dira, eta Ordenantzaren eranskinean ezarritakoari jarraiki zigortuko dira.

*110. Artikulua.*

Isuna ordaintzea: Isunari dagokion zigorra borondatez ordaindu ahal izango da. Kasu horretan isunaren zenbatekoa %50 murriztuko da. Borondatezko ordainketa isuna ematen den unean egin ahal izango da. Isuna jartzen den unean jakinarazten ez baldin bada, hamabost egun naturaleko epea izango da, isuna jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, borondatezko ordainketa egiteko. Isuna unean bertan jakinarazten bada, bestalde,

TITULO V
DE LA CIRCULACIÓN DE CICLOMOTORES

1. Ciclomotores

*Artículo 107.*

Tienen la consideración de ciclomotores los vehículos que se definen a continuación:

— Ciclomotor de dos ruedas: Vehículo de dos ruedas, provisto de un motor de cilindrada no superior a 50 $cm^3$, si es de combustión interna, y con una velocidad máxima por construcción no superior a 45 km/h.

— Ciclomotor de tres ruedas: Vehículo de tres ruedas, provisto de un motor de cilindrada no superior a 50 $cm^3$, si es de combustión interna y con una velocidad máxima por construcción no superior a 45 km/h.

— Cuadriciclos ligeros: Vehículos de cuatro ruedas cuya masa en vacío sea inferior a 350 kg, no incluida la masa de las baterías en el caso de los vehículos eléctricos, cuya velocidad máxima por construcción no sea superior a 45 km/h. y con un motor de cilindrada inferior o igual a 50 $cm^{3,}$ para los motores de explosión, o cuya potencia máxima neta sea inferior o igual a 4 kW. para los demás tipos de motores.

TITULO VI
INFRACCIONES Y SU GRADUACIÓN Y DE LAS SANCIONES APLICABLES

CAPITULO UNICO. INFRACCIONES

*Artículo 108.*

Tendrán carácter de falta administrativa, todas las acciones y omisiones que la presente Ordenanza tipifica como infracciones, sin perjuicio de la aplicación directa a estos efectos del RD 339/90, de 2 de marzo y sus disposiciones reglamentarias, a no ser que puedan constituir delitos o faltas tipificadas en las leyes penales, en cuyo caso la Administración pasará el tanto de culpa al orden jurisdiccional competente y se abstendrá de seguir el procedimiento sancionador mientras la Autoridad Judicial no dicte sentencia firme.

Las acciones u omisiones contrarias a esta Ordenanza, tendrán el carácter de infracciones administrativas

*Artículo 109.*

Las infracciones leves, graves y muy graves, a esta Ordenanza o a la normativa general sobre ésta materia se clasificarán según lo estipulado en el cuadro de infracciones y sanciones establecido por la Dirección de Tráfico del Departamento de Interior del Gobierno Vasco que se actualizará anualmente.

Se exceptúan las infracciones a los artículos 35, 79, 80 de la presente Ordenanza que serán sancionadas con arreglo a lo establecido en el anexo de la misma.

*Artículo 110.*

Pago de la multa: Se podrá realizar el pago voluntario de la sanción de multa con una reducción del 50 por ciento del importe, tanto en el acto de entrega de la denuncia como dentro del plazo de quince días naturales contados desde el día siguiente al de su notificación en el supuesto de que ésta no tuviera lugar en el acto, o de veinte días naturales en el caso de que fuera notificada en el acto. En ambos supuestos se dará por

hogei egun naturaleko epea izango da. Bi kasuetan bukatutzat emango da zigor prozedura, eta ez da berariazko ebazpenik emateko beharrik izango. Ondorioz, arau-hausleak uko egin beharko dio alegazioak aurkezteari. Horretaz gain, arau-hausleari bukatu egingo zaio inpugnazio arloko administrazio-bidea. Epe hori igarotakoan, isunaren zenbatekoa Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren arau-hausteen taulan finkatutakoa izango da. Halaber, zigor prozeduran ordaintzeko ezarritako epeak igaro ostean, isuna ordaindu ez bada, premiamenduzko bidearen bitartez ordainaraziko da. Horrela bada, isunari buruzko beharrezko informazioa Udaleko Diru-bilketa Betearazlearen Zerbitzuetara bidaliko da, ondorio guztietarako.

Arestian aipatutako murrizketa ez da ezarriko azaroaren 23ko 18/2009 Legearen 65. artikuluko 5.h), j) eta 6. ataletan aurreikusitako arau-hausteen kasuan. Lege horren bidez Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aldatzen da.

*111. Artikulua.*

Ibilgailuaren titularrak, behar bezala eskatuz gero, araua hautsi duen gidaria identifikatzeko betebeharra izango du. Hori dela-eta, gidariaren izena, abizenak, helbidea eta gidatzeko baimenaren edo lizentziaren zenbakia eman beharko ditu, pertsona hori gidarien eta arau-hausleen Erregistroan identifikatzeko. Prozedurazko tramitearen baitan, justifikatutako arrazoirik gabe, titularrak betebehar hori betetzen ez badu, diruzko zigorra jarriko zaio hutsegite oso larriaren egilea izango balitz bezala. Gidaria Gidarien eta Arau-hausleen Erregistroan inskribatuta ez badago, titularrak Espainian gidatzeko ahalmena ematen dion administrazio-baimenaren kopia izan beharko du, eta Administrazioaren esku jarri beharko du eskatzen zaionean. Titularra gidaririk gabeko ibilgailuen alokairurako enpresa bat baldin bada, administrazio-baimenaren kopia aurkeztu beharrean, alokairuaren kopia aurkeztu ahal izango da.

## VII. TITULUA
## BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK

### I. KAPITULUA. IBILGAILUAK IBILGETZEA

*112. Artikulua.*

Ondoren zehaztuko diren kasuetan bidezkoa izango da bide-publikoan dauden ibilgailuak ibilgetzea:

112.1. Ibilgailuak zirkulatzeko administrazio baimenik ez badu, bai lortu ez duelako, bai indarra galdu ostean, ezeztatu egin delako.

112.2. Ibilgailuak bide segurtasunerako bereziki oso arriskutsuak diren akatsak baldin baditu.

112.3. Ziklomotorearen edo motozikletaren gidariak edo bertan doan bidaiariak arauzkoa den babes-kaskoa ez badaramate.

112.4. Gidariak edo gidatzeko gaitasuna duten bidaiariek, botatako airearen alkohol maila, gai sorgorgarrien maila eta antzekoen maila neurtzeko probak egiteari ezetz esaten badiote, edo proba horien emaitza positiboa bada.

112.5. Ibilgailuak nahitaezko asegururik ez badu.

112.6. Gidaldia gehiegizkoa dela ikusten bada, edo arau bidez ezarrita dauden %50etik gorako atsedenaldiak gutxitzen badira, gidariaren ordez beste gidariren bat jartzen den kasuetan izan ezik.

concluido el procedimiento sancionador sin necesidad de dictar resolución expresa y suponiendo para el infractor la renuncia a formular alegaciones y el agotamiento para éste de la vía administrativa en materia de impugnación. Transcurrido dicho plazo el importe de la misma será la cantidad estipulada en el Cuadro de infracciones y sanciones de la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco, y una vez vencidos los plazos de ingreso del procedimiento sancionador sin que hubiese satisfecho la multa, su exacción se llevará a cabo por el procedimiento de apremio, siendo por lo tanto remitida la información correspondiente y necesaria a los Servicios de Recaudación Ejecutiva del Ayuntamiento a todos los efectos.

La reducción citada no será de aplicación a las infracciones previstas en el artículo 65, apartado 5. h), j) y 6. «de la ley 1872009, de 23 de noviembre, por la que se modifica el texto articulado de la ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial».

*Artículo 111.*

El titular del vehículo debidamente requerido para ello, tiene el deber de identificar al conductor infractor, precisando su nombre, apellidos, domicilio y número de permiso o licencia de conducción que permita la identificación en el Registro de conductores e Infractores y si incumpliere ésta obligación en el trámite procedimental oportuno sin causa justificada, será sancionado pecuniariamente como autor de falta muy grave. Si el conductor no figura inscrito en el Registro de Conductores e Infractores, el titular deberá disponer de copia de la autorización administrativa que le habilite a conducir en España y facilitarla a la Administración cuando le sea requerida y en el supuesto en el que el titular fuese una empresa de alquiler de vehículos sin conductor, la copia de la autorización administrativa podrá sustituirse por la copia del contrato de arrendamiento.

## TITULO VII
## DE LAS MEDIDAS PROVISIONALES

### CAPITULO I. INMOVILIZACIÓN DE VEHÍCULOS

*Artículo 112.*

Será procedente la inmovilización de vehículos en la vía pública, en los siguientes supuestos:

112.1. Cuando el vehículo carezca de autorización administrativa para circular, bien por no haberla obtenido o porque haya sido objeto de anulación, declarada su pérdida de vigencia.

112.2. Cuando el vehículo presente deficiencias que constituyan un riesgo especialmente grave para la seguridad vial

112.3. Cuando el conductor o el pasajero del ciclomotor o motocicleta no hagan uso del casco de protección reglamentario.

112.4. Cuando el conductor o sus acompañantes habilitados para conducir, se nieguen a realizar las pruebas de detección de los niveles de alcohol en aire espirado, sustancias estupefacientes y similares o éstas arrojen un resultado positivo.

112.5. Cuando el vehículo carezca de seguro obligatorio.

112.6. Cuando se observe un exceso en los tiempos de conducción o una minoración en los tiempos de descanso que sean superiores al 50 por ciento de los tiempos establecidos reglamentariamente salvo que el conductor sea sustituido por otro.

112.7. Ibilgailua okupatuegi baldin badago, hau da, ibilgailuaren plazak baimendutakoa baino %50 gehiago baldin badira. Gidariaren plaza ez da kontuan izango.

1 12.8. Ibilgailuak arau bidez baimendutako gas, ke eta zarata mailak gainditzen baditu. Kontuan izango da zein ibilgailu mota den.

112.9. Kontrol tresnak manipulatu ahal izan direla agerian jartzen duten arrazoizko zantzuak baldin badaude.

112. 10. Ibilgailuak Trafikoko Agintaritzaren zaintzari eta hartutako irudien bidezko kontrol neurriei itzuri egiteko mekanismoak edo sistemak jarrita dituela antzematen bada.

*113. Artikulua.*

Ibilgailua ibilgetzeko neurria, neurri hori eragin zuten arrazoiak desagertu bezain laster altxatuko da.

Ibilgailua Agintaritzako Agenteek adierazten duten tokian bertan ibilgetuko da. Hori dela-eta, Agenteak berak adierazitako lekuraino gidatzen jarrai dezala esan ahal izango dio gidariari.

## II. KAPITULUA. IBILGAILUAK HERRI-BIDETIK ERRETIRATZEA

*114. Artikulua.*

Udal Agintaritzak edo bertako Agenteek, ondoren zehaztuko diren kasuetan, ibilgailua herri bidetik kentzeko eta propio jarritako gordetegira eramateko agindua eman ahal izango dute.

114.1. Ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioarentzat arriskutsua bada edo ibilgailuei eta oinezkoei eragozpen larriak sortzen badizkie, edo bestela, zerbitzu edo ondare publikoren bat narriatzen badu.

114.2. Ibilgailuaren martxa eragozten duen istripuren bat izan bada.

114.3. Ibilgailua ibilgetzea legezkoa bada ere, ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioa oztopatu gabe, ibilgailua ibilgetzeko toki egokirik ez badago.

114.4. 25. artikuluan ezarritako edozein arrazoi dela medio ibilgailuren bat ibilgetu bada, eta arrazoi horiek desagertzeko denbora nahikoa igaro bada ere, arrazoiek bere horretan jarraitzen badute.

114.5. Ibilgailu bat, baimena ematen duen adierazgarririk jarri gabe, Udal Agintaritzak ezintasuna duten pertsonek erabiltzeko gordetako aparkalekuan aparkatuta badago.

114.6. Ibilgailua hainbat erabiltzaileren zirkulaziorako edo zerbitzurako propio gordeta dauden erreietan edo bide zatietan eta zamalanetarako gordetako bide-zatietan aparkatuta badago.

114.7. Udal Agintaritzak denbora muga baten barruan aparkatzeko egokitutako lekuetan, ibilgailuren bat horretarako baimena ematen duen bereizgarririk gabe aparkatzen baldin bada, edo udal ordenantzan ezarritakoarekin bat etorriz, baimendutako denbora hiru aldiz gainditzen baldin bada.

114.8. Ibilgailua, 30 egunetik gora, herri-bideko toki berean aparkatuta baldin badago, eta bere kabuz mugitzea ezinezkoa egingo duten akatsak baditu; edo matrikula plakak falta bazaizkio.

Titularrari 24 orduko epean aditzera emango zaio ibilgailua erretiratu eta gordailatu egin dela.

112.7. Cuando se produzca una ocupación excesiva del vehículo que suponga aumentar en un 50 por ciento el número de plazas autorizadas, excluida la del conductor.

112.8. Cuando el vehículo supere los niveles de gases, humos y ruido permitidos reglamentariamente, según el tipo de vehículo.

112.9. Cuando existan indicios racionales que pongan de manifiesto la posible manipulación en los instrumentos de control.

112. 10. Se detecte que el vehículo está dotado de mecanismos o sistemas encaminados a eludir la vigilancia de los Agentes de Tráfico y de los medios de control a través de la captación de imágenes.

*Artículo 113.*

La medida de inmovilización será levantada tan pronto como desaparezcan las causas que la motivaron.

La inmovilización del vehículo se producirá en el lugar señalado por los Agentes de la Autoridad. A estos efectos, el Agente podrá indicar al conductor que continúe circulando hasta el lugar designado.

## CAPITULO II. RETIRADA DE VEHÍCULOS DE LA VIA PÚBLICA

*Artículo 114.*

La Autoridad municipal o sus Agentes podrán ordenar, la retirada del vehículo de la vía pública y su traslado al depósito establecido al efecto, en los siguientes casos:

114.1. Siempre que constituya peligro o cause graves perturbaciones a la circulación de vehículo o peatones o deteriore algún servicio o patrimonio público.

114.2. En caso de accidente que impida continuar su marcha.

114.3. Cuando, procediendo legalmente la inmovilización del vehículo, no hubiere lugar adecuado para practicarla sin obstaculizar la circulación de vehículo o personas.

114.4. Cuando inmovilizado el vehículo por cualesquiera de las causas establecidas en el artículo 25, habiendo transcurrido tiempo bastante para hacer desaparecer dicha causa, ésta persistiera.

114.5. Cuando un vehículo permanezca estacionado en lugares habilitados por la Autoridad municipal como zonas de aparcamiento reservado para el uso de personas con discapacidad sin colocar el distintivo que lo autoriza.

114.6. Cuando un vehículo permanezca estacionado en los carriles o partes de las vías reservados exclusivamente para la circulación o para el servicio de determinados usuarios y en las zonas reservadas a la carga y descarga.

114.7. Cuando un vehículo permanezca estacionado en lugares habilitados por la Autoridad municipal como de estacionamiento con limitación horaria sin colocar el distintivo que lo autoriza o cuando se rebase el triple del tiempo abonado conforme a lo establecido en la Ordenanza Municipal

114.8. Cuando permanezca estacionado por un período superior a 30 días en el mismo lugar de la vía pública y presente desperfectos que hagan imposible su desplazamiento por sus propios medios o le falten las placas de matriculación.

Se comunicará la retirada y deposito del vehículo al titular en el plazo de 24 horas.

*115. Artikulua.*

Ibilgailua ezin izango da gordetegira eraman, gidaria bertan baldin badago, eta ibilgailua lotu aurretik egoera irregular horri bukaera ematen badio. Hori dela-eta, Agintaritzaren Agenteak ibilgailuaren ondoan dagoen gidariari, jabeari edo pertsona arduradunari eskatu ahal izango dio, amaiera eman diezaiola egoera irregular horri. Ibilgailuaren ondoan inor ez badago, edo bertan dagoenak agentearen eskakizunei jaramonik egiten ez badie, ibilgailua eraman egingo da. Zeregin honek ez du zerikusirik izango, trafikoko legeak hautsi dituen gidariaren aurka, Agenteak egingo duen identifikazioarekin eta salaketarekin.

*116. Artikulua.*

Ibilgailuaren barruan norbait baldin badago, ezin izango da ibilgailua gordetegira eraman. Ibilgailua erretiratzeko ardura duen Agenteak ibilgailuaren gidariari edo bertan daudenei irteteko agindua eman, eta jaramonik egiten ez badiote, ordena publikoa dela-eta kalte handiagorik gerta ez dadin, ibilgailua eraman ahal izateko, beharrezko neurriak hartuko dira, eta ibilgailua erabat ibilgetuko da.

*117. Artikulua.*

Adierazburu gisa, ondoren zehaztuko diren kasuetan esan daiteke ibilgailu bat Ordenantza honen 1 30. artikuluaren 1. atalean zehaztutako inguruabarretan dagoela, hortaz, bidezkoa izango da garabia erabilita ibilgailu hori herri-bidetik erretiratzea.

117.1. Ibilgailua bigarren lerroan aparkatuta baldin badago, gidaria bertan egon gabe.

117.2. Ibilgailua aparkatuta dagoen tokian gainerako gidariak maniobra arriskutsuak egitera behartuta badaude.

117.3. Ibilgailua oinezkoentzako pasabide seinaleztaturen batean aparkatuta baldin badago.

117.4. Udalak baimendutako autoentzako pasabidearen plaka zenbakitua jarrita dagoen eraikinerako sarrera edo irteera oztopatzen bada.

117.5. Ibilgailua zamalanetarako propio jarritako tokietan, lan hori burutzen den orduetan, aparkatuta baldin badago.

117.6. Ibilgailua, ordutegiaren barruan, garraio publikorako geltokiren batean aparkatuta badago.

117.7. Ibilgailua larrialdietako eta segurtasuneko zerbitzuentzat berariaz gordetako lekuren batean aparkatuta badago, edo ibilgailu horiei lekuren batera joatea eragozten badie.

117.8. Ibilgailua ikuskizun publikoak egiten diren tokietako larrialdietako irteeren aurrean aparkatuta badago. Toki horiek behar bezala seinaleztatuta egongo dira.

117.9. Ibilgailu osoa edo zati bat espaloiren batean edo aparkatzea debekatuta dagoen tokiren batean aparkatuta badago.

117. 10. Ibilgailua aparkatuta dagoen tokian trafiko seinaleen ikuspena oztopatzen bada, baldin eta seinale horiek ez errespetatzearen ondorioz gainerako erabiltzaileei arrisku larria sortzen bazaie.

117. 11. Ibilgailua aparkatuta dagoen tokian eraikin baterako sarrera osorik edo zati bat oztopatzen bada.

117. 12. Ibilgailuak erabilera publikoko aparkaleku edo ibilgailuen gordetegi batean sartzea, zirkulatzea edo aparkatzea oztopatzen baldin badu. Aparkalekuak behar bezala baimenduta egon beharko du.

*Artículo 115.*

No procederá la retirada del vehículo al depósito cuando, hallándose presente su conductor, adopte las medidas procedentes para cesar en su irregular situación antes del enganche del vehículo. A este fin, el Agente de la Autoridad requerirá al conductor, propietario o persona encargada del vehículo que se encontrare junto a éste, para que cese su irregular situación y, en caso de no existir dicha persona o que no atienda a su requerimiento, se procederá al traslado del vehículo. Esta labor la llevará a cabo con independencia de la identificación y denuncia que efectúe el Agente contra el conductor por infracción a las leyes de tráfico.

*Artículo 116.*

No podrá realizarse el traslado del vehículo al depósito con ocupante alguno en su interior. Si el Agente encargado de la retirada ordenara al conductor u ocupantes que salieran del vehículo y fuera desobedecido, y en evitación de mayores perjuicios al orden público, el traslado se hará con la adopción de medidas de seguridad que garanticen la inmovilización absoluta del vehículo durante el transporte.

*Artículo 117.*

A título enunciativo se considera que un vehículo está en circunstancias determinadas en el apartado 1 del Artículo 130 de esta Ordenanza, y por tanto está justificada su retirada con la grúa de la vía pública:

117.1. Cuando el vehículo se halle estacionado en doble fila sin conductor.

117.2. Cuando el vehículo se halle estacionado en un lugar tal que obligue a otros conductores a realizar maniobras con riesgo.

117.3. Cuando se encuentre estacionado sobre un paso de peatones señalizado.

117.4. Cuando obstaculice la salida o entrada de inmueble señalizado con placa numerada de vado autorizado por el Ayuntamiento.

117.5. Cuando se encuentre estacionado en lugares expresamente señalados con reserva de carga y descarga durante las horas de su utilización.

117.6. Cuando se encuentre estacionado en una parada de transporte público, durante su horario de actividad.

117.7. Cuando se encuentre estacionado en un lugar expresamente reservado a servicios de urgencia y seguridad u obstruya el acceso de estos vehículos a alguna zona.

117.8. Delante de las salidas de emergencia de lugares destinados a espectáculos públicos durante las horas de su celebración, debidamente señalizadas.

117.9. Cuando el vehículo se halle estacionado total o parcialmente sobre una acera o paseo en el que no esté autorizado el estacionamiento.

117. 10. Cuando se encuentre en un emplazamiento tal que impida la visión de señales de tráfico cuya inobservancia devengue grave riesgo para los demás usuarios.

117. 11. Obstruyendo total o parcialmente la entrada de un inmueble.

117. 12. Impidiendo o dificultando el acceso, circulación o estacionamiento en un aparcamiento o guardería de vehículos de uso público, debidamente autorizada.

117. 13. Ibilgailuaren egoera dela-eta, ibilgailuaren ondotik pasatzen diren oinezkoentzat arriskutsua bada.

1 17. 14. Matxura dela eta besterik ez, aparkatuta dagoen ibilgailuak auzotarrei eragozpen handiak sortzen badizkie, ibilgailuaren soinu-alarma abian egonik, arduraduna aurkitzea ezinezkoa delako.

117. 15. Ibilgailua behar bezala seinaleztatuta dauden ezinduentzako guneetan aparkatuta badago.

117. 16. Ibilgailua aparkatuta dagoen lekuan, seinaleen indargarri gisa garabiaren seinalea jarrita badago.

117. 17. Ibilgailua, 6:00ak eta 15:00ak bitartean, asteroko merkatua egiteko egokitutako lekuan aparkatuta badago.

1 17. 18. Ibilgailua, 6:00etatik 20:00ak bitartean, hileko azken larunbateko feria egiteko izendatutako lekuan aparkatuta badago.

*118. Artikulua.*

Ibilgailuak erretiratzeko Udal gordetegirik ez dagoelako, gaizki aparkatuta egoteaz gain, ibilgailuek zirkulazio arazoak sortzen badituzte, asteroko azoka egiten den egunetan saltokiak jartzea galarazten badute, hileroko ferian saltokiak jartzea galarazten badute, dagokion pasabide seinalea jarrita duten garajeetarako sartu-irtenak oztopatzen badituzte edo-eta 28. artikuluan zehaztutako inguruabarren batean badaude, erretiratu egingo dira garabiarekin eta aparkatzeko gordetako lekuren batean ibilgetuko dira. Jardunean dagoen Agintaritzako Agenteak adieraziko du ibilgailua non ibilgetuko den. Gainera, egoera horretan egongo da ibilgailua erretiratzeagatiko tasa ordaindu arte.

*119. Artikulua.*

Ondoren zehaztuko diren kasuetan ere ibilgailuak herribidetik erretiratu ahal izango dira, nahiz eta arau-hausterik eta ordaintzeko betebeharrik ez izan.

a) Ibilgailua behar bezala baimenduta dagoen ekitaldi publiko bat egin behar den lekuan aparkatuta badago.

b) Herri-bidea garbitzeko, konpontzeko, mantentzeko edo seinaleztatzeko ibilgailua erretiratzea ezinbestekoa bada.

c) Behar bezala arrazoitutako larrialdiren batean.

Kasu horietan, eta 5.4. artikuluan ezarritakoaz gain, ibilgailuaren titularrari ibilgailua erretiratzeko zein arrazoi izan den eta ibilgailua non dagoen aditzera emango zaio.

*120. Artikulua.*

Ibilgailua erretiratzea bertan behera geldit uko da, gidaria bertaratzen bada eta ibilgailuaren egoera irregularra eteten baldin badu. Tasei dagokienez, bestalde, Zerbitzuak Eskaintzeagatiko Tasa Arautzen duen Udal Ordenantzan ezarritakoa izango da kontuan.

## III. KAPITULUA. IBILGAILUAK IBILGETZEAGATIKO, ERRETIRATZEAGATIKO ETA GORDAILATZEAGATIKO ZERBITZU PUBLIKOA ESKAINTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

*121. Artikulua.*

Bide publikoan dauden ibilgailuak ibilgetzeagatiko eta erretiratzeagatiko eta gordailatzeagatiko zerbitzuak eskaintzeagatik sortzen diren tasak dagokion Udal Ordenantzak ezarriko ditu ekitaldi bakoitzean.

117. 13. Cuando por su estado de conservación constituya un riesgo fundado para los transeúntes que pasan junto a él.

117. 14. Cuando constituya una molestia grave para el vecindario cuando, estacionado y sin causa justificada sino la de avería, esté accionada la alarma acústica del vehículo y no sea posible la localización de su responsable.

117. 15. En las zonas reservadas a minusválidos debidamente señalizadas.

117. 16. En las zonas donde la señalización esté reforzada con la señal informativa de grúa.

117. 17. En la zona habilitada para los días de mercado semanal, entre las 6,00 y las 15,00 horas.

117. 18. En la zona habilitada para los días de la feria mensual del último sábado del mes de 6:00 a las 20:00 horas.

*Artículo 118.*

Cuando por carecer de depósito municipal para la retirada de vehículos o por no disponer de espacio útil en el mismo si lo hubiera, los vehículos que además de hallarse en régimen de parada o estacionamiento irregular, ocasionen trastornos circulatorios, imposibiliten la instalación de los puestos los días del mercado semanal, la instalación de los puestos de la feria mensual o impidan la salida/entrada a garajes con la señal del vado correspondiente y/o circunstancias reflejadas en el art. 28, podrán ser retirados de dicho lugar con la grúa y ser inmovilizados en un lugar destinado al estacionamiento, donde lo indique el Agente de la Autoridad actuante, situación en la que permanecerá hasta el abono de la tasa correspondiente a la retirada.

*Artículo 119.*

También se podrán retirar los vehículos de la vía pública, aunque no exista infracción ni obligación de pago, en los siguientes supuestos:

a) Cuando se encuentre estacionado en un lugar que se haya de ocupar por un acto público debidamente autorizado.

b) Cuando resulte necesario para la limpieza, reparación, mantenimiento o señalización de la vía pública.

c) En caso de emergencia, debidamente motivada.

En estos supuestos, y sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 5.4, se procurará informar al titular del vehículo de las circunstancias de la retirada del mismo y, en su caso, de su localización.

*Artículo 120.*

La retirada de un vehículo se suspenderá inmediatamente si comparece su conductor y toma las medidas necesarias para hacer cesar la situación irregular en la que se encontraba el vehículo resultando de aplicación, en lo que se refiere a las tasas, lo dispuesto en la Ordenanza Municipal Reguladora de Tasas por Prestación de Servicios.

## CAPITULO III. TASAS POR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE INMOVILIZACIÓN, RETIRADA Y DEPÓSITO DE VEHICULOS

*Artículo 121.*

Las tasas que devenga la prestación de los servicios de inmovilización y retirada de vehículos de la vía pública, así como el de depósito de los mismos, serán las que establezca para cada ejercicio la correspondiente Ordenanza Municipal

*122. Artikulua.*

Ibilgetzea altxatu ostean, ibilgailua titularrari edo baimendutako pertsonari bakarrik itzuliko zaio. Horretarako, aldez aurretik, dagozkion tasak ordaindu beharko dira, Ordenantza honen 32. artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

*123. Artikulua.*

Bide-publikotik erretiratu diren ibilgailuak Udalaren gordetegian gordailatuta gelditzen badira, gordailatze zerbitzuak dagozkion tasak sorraraziko ditu. Kontzeptu horren tasak dagozkion Ordenantzak ezarriko ditu.

*124. Artikulua.*

Tasa horiek autolikidazioaren araubidearen pean egongo dira. Autolikidazioa zerbitzuaren prestazioa bukatzen den unean egin beharko da. Ondoren zehaztuko direnek ordaintzeko betebeharra izango dute: Prestazioaren eskaintza eragin duten pertsonak, erakundeak edo instituzioak, baldin eta Tokiko Ogasunen Legean ezarritakoaren arabera, tasa horien subjektu pasibo badira.

IX. TITULUA
X. ZEHAPEN-PROZEDURA

KAPITULU BAKARRA. ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEA

*125. Artikulua.*

Ordenantza honen bitartez arautukako zehapen-prozedurak ondoren zehaztuko diren lege-arauak bete beharko ditu: 18/1989 Legea, uztailaren 25ekoa, Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren Oinarriei buruzkoa; 339/1990 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 2koa, Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari buruzko Legearen Testu artikulatua arautzen duena; 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; 320/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren arloko Zigor Prozedurari buruzko Araudia onartzen duena; 1398/1993 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, zehatzeko ahalmenaz baliatzeko prozedurari buruzko Araudia onartzen duena. Horretaz gain, ondoren onartutako araudiek ezarritako aldaketak ere izango dira kontuan.

Ordenantza honen bitartez arautukako arau-hausteak direlaeta abiarazitako espedienteak Udal organo eskudunek izapidetuko dituzte; eta behin izapidetzea bukatu ostean, Alkate-Lehendakariak dagokion ebazpena emango du.

*126. Artikulua.*

Arau-haustearen egintzak egin dituenak izango du arau-hauste horien gaineko zuzeneko erantzukizuna. Egilea ezezaguna baldin bada, Ordenantza honen 23. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ibilgailuaren titularrari eskatuko zaio erantzukizuna duen gidaria identifikatuko duten beharrezko datuak eman ditzala. Horretarako, 15 egun naturaleko epea izango da jakinarazpena jasotzen denetik hasita.

*127. Artikulua.*

Trafikoko arau hausteak izan daitezkeen egintzen berri duen Agintaritza Eskudunak ofizioz abiaraziko du zehapen prozedura. Horretaz gain, salaketa bidez ere ekingo zaio prozedurari.

*Artículo 122.*

El levantamiento de la inmovilización y la devolución del vehículo sólo podrán ser efectuadas al titular o persona autorizada y previo pago de las tasas que correspondan, excepto en los supuestos contemplados en el artículo 32 de la presente Ordenanza.

*Artículo 123.*

Cuando como consecuencia de la retirada de vehículos de la vía pública queden los mismos depositados en el depósito municipal, la prestación de dicho servicio de depósito devengará las tasas que por el citado concepto establezca la correspondiente Ordenanza.

*Artículo 124.*

Dichas tasas se someterán al régimen de autoliquidación, a efectuar en el momento en que cese la prestación del servicio, siendo los obligados a su pago las personas, Entidades o Instituciones que, habiendo motivado la prestación del servicio, tengan la consideración de sujeto pasivo de las mismas según lo dispuesto en la Ley de Haciendas Locales.

TITULO VIII
PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

CAPÍTULO ÚNICO. INSTRUCCIÓN DE EXPEDIENTES

*Artículo 125.*

El procedimiento sancionador regulado en ésta Ordenanza deberá en todo caso cumplir con lo dispuesto en la Ley 18/1989 de 25 de julio de Bases sobre Tráfico y Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial; el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor Seguridad Vial, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del procedimiento Administrativo Común, el Real Decreto 320/1994, de 25 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento del Procedimiento Sancionador en Materia de Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial; el Real Decreto 1398/1993, de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento del procedimiento para el ejercicio de la potestad sancionadora, teniendo en cuenta las modificaciones que ha sufrido por normativa posterior.

La instrucción de los expedientes incoados por infracciones reguladas en la presente Ordenanza, se llevará a cabo por los órganos municipales competentes y una vez finalizada, el Alcalde-Presidente dictará la resolución que proceda.

*Artículo 126.*

La responsabilidad por las infracciones recaerá directamente en el autor de los hechos en que consistan y, si éste no fuese conocido, se requerirá al titular del vehículo para que, en el plazo de 15 días naturales desde la recepción de la notificación, aporte los datos necesarios para la identificación del conductor responsable, en la forma prevenida en el art. 23 de ésta Ordenanza.

*Artículo 127.*

El procedimiento sancionador se incoará de oficio por la Autoridad competente que tenga noticia de los hechos que puedan constituir infracciones de tráfico o mediante denuncia.

Trafikoa zaintzeko ardura duten Agintaritzako Agenteek, lanean diharduten bitartean, Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea, Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorra, eta halaber, Ordenantza hau urratzen duten arau-hausteren bat egin dela ikusten badute, arau-haustea eragotzi eta, beharrezkoa izanez gero, salatu egingo dute. Adinez nagusia den edozein herritarrek, halaber, salaketak egin ahal izango ditu, trafikoko arau-haustetzat har daitezkeen egintzak direla-eta.

*128. Artikulua.*

Zirkulazioko egintzak salatzen direnean ondorengo inguruabar hauek jaso beharko dira: Ibilgailuaren identifikazioa, salatuaren nortasuna (baldin eta ezaguna bada); egintzari buruzko deskribapen laburra, gertakaria non eta noiz gertatu den jakiteko; salatuaren izen-abizenak eta helbidea. Salatua Agintaritzaren Agentea baldin bada, datu horien ordez, identifikazio zenbakia jarri ahal izango da.

Zirkulazioarekin zerikusirik ez duten egintzak salatzean, egintza horiek deskribatzeko beharrezkoak diren datu guztiak zehaztuko dira.

*129. Artikulua.*

Trafikoa zaintzeko ardura duten Agintaritzako Agenteek egiten dituzten salaketek salatutako egintzen fede emango dute, baldin eta aurkakoa frogatzen ez bada. Horiek horrela, Agintaritzako Agenteek salatutako egintzak froga ditzaketen elementu guztiak aurkezteko betebeharra izango dute.

*130. Artikulua.*

Salaketa agiria unean bertan emango zaio salatuari, eta posible baldin bada, hasiera emango zaio dagokion espedienteari, eta espedientea sinatuko dute bai salatzaileak, bai salatuak. Salatuak sinatu izanak ez du esan nahi salaketan ageri diren egintzekin ados dagoenik; salatuarentzako orria jaso duela besterik ez.

Salatuak sinatzeari uko egiten badio, edo sinatzeko gauza ez bada, salatzaileak hori jasota lagako du. Salatzailearen adierazpenak sinadurak duen eragin berbera izango du. Justifikatutako arrazoiak direla medio, salaketa ondoren jakinarazi ahal izango da; hala ere, salaketan bertan jasota laga beharko da zein diren arrazoi horiek. Unean bertan ematen ez diren isunek ez dute baliorik izango; baldin eta ibilgailua ez gelditzeko edo salaketa jarri zen unean bertan ez jakinarazteko zein arrazoi izan ziren jasotzen eta jakinarazten ez bada.

*131. Artikulua.*

Borondatezko salaketak ahoz jarri ahal izango dira Udaltzaingoaren Agenteen aurrean, edo bestela, idatzi bat bidali beharko da Alkatetzara.

Salaketa Udaltzainen aurrean aurkezten baldin bada, udaltzainek arauzko salaketa agiria beteko dute. Bertan, arestian aipatutako datuez gain, ondorengoak jaso beharko dira: Udaltzainak salatutako arau-haustea egiaztatu zuen ala ez, salatzailearen izena eta helbide partikularra. Agiria, berriz, Alkatetzara bidaliko da tramitatu ahal izateko, ondorengo artikuluan xedatutakoaren arabera.

*132. Artikulua.*

Udalaren organo eskudunak izango du Ordenantza honetan ezarritako arau-hausteak direla-eta abiarazten diren salaketak izapidetzeko zeregina.

Salaketa egin ondoren, egintzak kalifikatu eta isuna mailakatu egingo dira; edo Agenteak jarri dituen kalifikazioak eta isuna egiaztatuko dira. Salaketa ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio, baldin eta salatzaileak unean bertan jakinarazi ez badio.

Los Agentes de la Autoridad encargados de la vigilancia del tráfico deberán impedir y denunciar, si fuera necesario, las infracciones a la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, Reglamento General de Circulación y la presente Ordenanza, que observen en el ejercicio de sus funciones. Cualquier ciudadano mayor de edad podrá, igualmente, formular denuncias por hechos que constituyan infracción de las normas de tráfico.

*Artículo 128.*

En las denuncias por hechos de circulación deberá constar; la identificación del vehículo, la identidad del denunciado si fuera conocida, una descripción sucinta del hecho con la expresión del lugar, fecha y hora, la profesión y el nombre y domicilio del denunciante. Cuando este sea un Agente de la Autoridad podrán sustituirse estos datos por su número de identificación.

En las denuncias por hechos ajenos a la circulación se especificaran todos los datos necesarios para la exacta descripción de los mismos.

*Artículo 129.*

Las denuncias efectuadas por los Agentes de la Autoridad encargados de la vigilancia del trafico, harán fe, salvo prueba en contrario, respecto de los hechos denunciados, sin perjuicio del deber de aquellos de aportar todos los elementos probatorios que sean posibles sobre el hecho denunciado.

*Artículo 130.*

El boletín de denuncia será entregado en el acto al denunciado, si fuera posible, quedando incoado el correspondiente expediente y lo firmarán el denunciante y el denunciado, sin que la firma de éste implique conformidad con los hechos que motivan la denuncia, sino únicamente con la recepción del ejemplar a él destinado.

Si el denunciado se negase a firmar o no supiera hacerlo, el denunciante lo hará constar, y su manifestación producirá los mismos efectos que la firma. Por razones justificadas, que deberán hacerse constar en las propias denuncias, se podrá notificar con posterioridad, no siendo válidas las denuncias no entregadas en el acto si no se recogen y notifican las causas concretas y específicas que impidieron la detención del vehículo o su notificación en el momento del acto.

*Artículo 131.*

Las denuncias voluntarias podrán formularse verbalmente ante los Agentes de la Policía Local o por escrito dirigido a la Alcaldía.

Si la denuncia se presentase ante los Agentes de la Policía Local, se formalizará por ellos el reglamentario boletín de denuncia, en el que se consignará, además de los datos recogidos en el artículo anterior, si personalmente comprobó o no la infracción denunciada, así como el nombre y domicilio del particular denunciante, remitiéndose el boletín a Alcaldía para su posterior tramitación de acuerdo con lo dispuesto en el siguiente artículo.

*Artículo 132.*

La instrucción de los expedientes incoados por infracciones a lo dispuesto en esta Ordenanza recaerá en el Órgano competente del Ayuntamiento.

Recibida la denuncia, se procederá a calificar los hechos y graduar la multa o a verificar la calificación y multa consignadas por el Agente denunciante, notificándose al presunto infractor, si no se hubiera hecho por el denunciante en el acto.

Interesatuak 15 egun naturaleko epea izango du, jakinarazpena jasotzen duenetik hasita, bere defentsarako komenigarria iruditzen zaion guztia alegatzeko eta egokitzat jotzen dituen probak proposatzeko. Salaketa jartzen den unean ematen bada, alegazioak aurkezteko epea une horretan hasiko da. Hala ere, aditzera ematen zaio, alegazioak epe barruan egin ezean, prozedura hastean ebazpen proposamena egingo dela. Salatuaren alegazioak salatzaileari bidaliko zaizkio 15 eguneko epean txostena egin dezan; baldin eta datu berririk edo egiaztatutakoarekin zerikusirik ez duten daturik agertzen ez bada.

Gertakariak egiaztatzeko eta egon daitekeen erantzukizuna zehazteko bideratuko diren tramiteak egin ostean, beharrezkoa izanez gero probaldia irekiko da, eta ondoren, izapidetzaileak ebazpen proposamena egingo du. Ebazpen proposamen hori interesatuei bidaliko zaie, hamabost egun naturaleko epean, espedientea aztertuta, egoki irizten diotena alegatu ahal izan dezaten.

Espedientea izapidetu ostean, Alkateak ebazpena emango du. Horretarako, 6 hilabeteko epea izango da prozedurari ekiten zaionetik hasita. 6 hilabeteko epea bukatu eta 30 egun igaro ondoren, ebazpenik ematen ez bada, prozedura iraungi egingo da.

*133. Artikulua.*

Trafiko arloko eskumena duten tokiko administrazioek betebeharra izango dute Bideetako Helbide Elektronikora jakinarazpen telematikoak bidaltzeko. Horretarako, bi urteko epea izango da Lege hori indarrean sartzen denetik aurrera. Epe horretan, ibilgailuen titularrek, Bideetako Helbide Elektronikoa (BHE) izendatuta izan arren, euren helbideetan jaso ahal izango dituzte trafiko arloko eskumenak dituzten tokiko administrazioek egiten dituzten jakinarazpenak.

*134. Artikulua.*

Administrazio bideari amaiera ematen dioten ebazpenen aurka Administrazioarekiko Auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da.

*135. Artikulua.*

Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuan aurreikusitako arau-hausteak preskribatzeko epea hiru hilabetekoa izango da arau-hauste arinentzat, eta sei hilabetekoa, arau-hauste larrientzat eta oso larrientzat.

Preskripzio epea egintza burutzen den egunean bertan jarriko da abian. Preskripzioa salatuari jakinarazten zaion edozein administrazio-jardueraren ondorioz etengo da, edo salatuaren nortasuna edo helbidea jakiteko xedez beste Administrazio, Erakunde edo Organismo batzuekin bideratutako jarduera administratiboen ondorioz. Halaber, preskripzioa eten egingo da Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea artikulatzen duen testuaren 76., 77. eta 78. artikuluetan ezarritakoaren arabera egindako jakinarazpenaren ondorioz. Preskripzioa berriro ere abian jarriko da, salatuari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla medio, prozedura hilabete bat baino gehiagoz eteten baldin bada.

Diruzko isuna duten zigorrak preskribitzeko epea lau urtekoa izango da; gainerako zigorrena, berriz, urtebetekoa. Epea abian jarriko da isuna administrazio-bidean irmoa bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera.

Administrazioak diruzko isunak ordain daitezela eskatzeko duen eskubidea preskribatzeko epearen zenbaketa eta etetea Zerga Foru Arau Orokorraren bidez arautuko dira.

El interesado dispone de un plazo de 15 días naturales, contados a partir del recibo de la notificación, o desde la entrega de la denuncia si se hace en el acto, para alegar cuanto considere conveniente a su defensa y proponer las pruebas que estime oportunas, con la advertencia de que, de no efectuar alegaciones en plazo, la iniciación del procedimiento se considerará propuesta de resolución. De las alegaciones del denunciado, salvo que no aporten datos nuevos o distintos a los constatados, se dará traslado al denunciante para que informe en el plazo de 15 días.

Ultimados los trámites dirigidos a la averiguación de los hechos y determinación de las posibles responsabilidades, acordando la apertura de un periodo de prueba cuando fuera necesario, el instructor formulará la propuesta de resolución, dándose traslado de la misma a los interesados para que en un plazo de 15 días naturales puedan alegar lo que estimen pertinente con vista del expediente.

Finalizada la instrucción del expediente el Alcalde dictará resolución en el plazo de 6 meses a contar desde que se inició el procedimiento. Si no hubiese recaído resolución transcurridos 30 días desde la finalización del plazo de 6 meses se producirá la caducidad del procedimiento.

*Artículo 133.*

Las Administraciones locales con competencias en materia de tráfico vendrán obligadas a efectuar las notificaciones telemáticas a la Dirección Electrónica Vial en el plazo de dos años a partir de la entrada en vigor de la Ley 18/20 09. Durante ese plazo de tiempo, los titulares de vehículos aunque tengan asignada una Dirección Electrónica Vial (DEV) podrán seguir recibiendo en su domicilio las notificaciones practicadas por las Administraciones locales con competencias en materia de tráfico.

*Artículo 134.*

Contra las resoluciones que pongan fin a la vía administrativa podrá interponerse recurso Contencioso-Administrativo.

*Artículo 135.*

El plazo de prescripción de las infracciones previstas en el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, será de tres meses para las infracciones leves y seis meses para las infracciones graves y muy graves.

El plazo de prescripción se cuenta a partir del mismo día en que los hechos se hubieran cometido. La prescripción se interrumpe por cualquier actuación administrativa de la que tenga conocimiento el denunciado o esté encaminada a averiguar su identidad o domicilio y se practiquen con otras Administraciones, Instituciones u Organismos. También se interrumpe la prescripción por la notificación efectuada de acuerdo con lo establecido en los artículos 76,77 y 78 del texto articula de la Ley sobre Tráfico Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial. La prescripción se reanuda si el procedimiento se paraliza durante más de un mes por causa no imputable al denunciado.

El plazo de prescripción de las sanciones consistentes en multa pecuniaria será de cuatro años y el de las demás sanciones será de un año, computados desde el día siguiente a aquél en que adquiera firmeza en vía administrativa la sanción.

El cómputo y la interrupción del plazo de prescripción del derecho de la Administración para exigir el pago de las sanciones consistentes en multa pecuniaria se regirán por lo dispuesto en la Norma Foral General Tributaria.

*136. Artikulua.*

Ezin izango dira Ordenantza honetan aurreikusitako zigorrak betearazi, administrazio bidean irmoak bihurtzen diren arte.

*137. Artikulua.*

Isunak irmo bihurtu eta 15 laneguneko epean ordaindu beharko dira. Epe hori igaro eta isuna ordainarazi ez bada, premiamenduzko prozeduraren bitartez kobratuko da. Hori dela eta, betearazteko titulutzat hartuko da Udalaren organo eskudunak egiten duen zorpeko ziurtagiria.

*138. Artikulua.*

Zigor larriak eta oso larriak Gidarien eta Arau-hausleen Erregistroan aditzera emango dira. Horretarako, hamabost egun naturaleko epea izango da zigorra administrazio bidean irmo bihurtzen denetik hasita.

Gidabaimenaren edo gidatzeko lizentziaren baten titular denak ezin izango du Ibilgailuen Erregistroan haren izenean dituen ibilgailuei buruzko inolako tramiterik egin, baldin eta gidariaren historialean, arau hauste larrien edo oso larrien ondorioz, administrazio bidean irmoak diren lau zigor ordaindu gabe baditu. Era berean titularrak ezin izango du berari buruzko inolako tramiterik egin, baldin eta gidariaren historialean, arau-hauste larrien edo oso larrien ondorioz, administrazio-bidean irmoak diren lau zigor ordaindu gabe baditu. Aurreko mugatik kanpo geldituko da ibilgailuari aldi baterako edo behin betiko baja emateko tramitea.

*139. Artikulua.*

Arau-hauste arinei 40 euroko isuna jarriko zaie, arau-hauste larriei 200 eurokoa, eta oso larriei, 500 eurokoa. Hala ere, abiadura mugak ez errespetatzeagatik egiten diren arau-hausteak azaroaren 23ko 18/2009 Legearen IV. Eranskinean aurreikusitako zenbatekoekin zigortuko dira. Lege horren bidez, aldatu egiten da martxoaren 2an eman zen zigor arloko 339/1990 Legegintzako Errege dekretuak onartu zuen Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua.

a) 65.5.j) artikuluan aipatutako arau-haustea dela-eta aurreikusi den isuna arau-hauste hori sorrarazi duen arau-haustearentzako jarri den isunaren bikoitza izango da, baldin eta arau-haustea arina bada; eta hirukoitza, arau-haustea larria edo oso larria bada.

b) 65.5.h) artikuluan jasotako arau-hausteari 6.000 euroko isuna jarriko zaio.

c) 65.6. artikuluan jasotako arau-hausteei 3.000 eta 20.000 euro arteko isuna jarriko zaie.

Horretaz gain, 65.6.e) artikuluan jasotako arau-haustearen kasuan, dagokion baimena urtebetez eteteko zigorra jarri ahal izango da.

Isunen zenbatekoa %30 gehitu ahal izango da, egintzaren larritasunak eta garrantziak, arau-hauslearen aurrekariek eta berrerortzeek, gidariak bere buruari eta bidearen gainerako erabiltzaileei sortu ahal izan dien arriskuak eta proportzionaltasun irizpideak horrela jokatzea aholkatzen badute.

*140. Artikulua.*

Herri-bidean egiten diren arau-hausteak, Alkatearen zigoreskumenetik kanpo gelditzen direnak, Udaltzainek eta Aparkalekuak Kontrolatzeko Zerbitzuaren Zaintzaileek salatuko dituzte, eta ondoren, izapidetzaileak Administrazio eskudunari bidaliko dizkio egindako salaketak.

*Artículo 136.*

No se podrá proceder a la ejecución de las sanciones previstas en esta Ordenanza que no hayan adquirido firmeza en vía administrativo.

*Artículo 137.*

Las multas deberán hacerse efectivas dentro de los 15 días hábiles siguientes a la fecha de su firmeza. Transcurrido dicho plazo sin haberse satisfecho su exacción se llevará a cabo por el procedimiento de apremio. A tal efecto, será título ejecutivo la certificación de descubierto expedida por el órgano competente del Ayuntamiento.

*Artículo 138.*

Sanciones graves y muy graves serán comunicadas al Registro de Conductores e Infractores en el plazo de quince días naturales a su firmeza en vía administrativa.

El titular de un permiso o licencia de conducción no podrá efectuar ningún trámite relativo a los vehículos de los que fuese titular en el Registro de Vehículos cuando figurasen como impagadas en su historial de conductor cuatro sanciones firmes en vía administrativa por infracciones graves o muy graves; así como el titular de un vehículo tampoco podrá efectuar ningún trámite relativo al mismo cuando figurasen como impagadas en el historial del vehículo cuatro sanciones firmes en vía administrativa por infracciones graves o muy graves. Queda exceptuado de la limitación anterior el trámite de baja temporal o definitiva del vehículo.

*Artículo 139.*

Las infracciones leves serán sancionadas con multa de 40 euros, las graves con multa de 200 euros y las muy graves con multa de 500 euros. No obstante, las infracciones consistentes en no respetar los límites de velocidad se sancionarán en la cuantía prevista en el Anexo IV de la Ley 18/2009, de 23 de noviembre, por la que se modifica el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículo a Motor y Seguridad Vial, aprobado por el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, en materia sancionadora.

a) La multa por la infracción prevista en el artículo 65.5.j) será el doble de la prevista para la infracción originaria que la motivó, si es una infracción leve y el triple si es infracción grave o muy grave.

b) La infracción recogida en el artículo 65.5.h), se sancionará con multa de 6.000 euros.

c) Las infracciones recogidas en el artículo 65.6. se sancionarán con multa de entre 3.000 y 20.000 euros.

Asimismo, en el supuesto de la infracción recogida en el artículo 65.6.e) se podrá imponer la sanción de suspensión de la correspondiente autorización por el periodo de un año.

La cuantía económica de las multas podrá incrementarse en un 30 por ciento en atención a la gravedad y trascendencia del hecho, los antecedentes del infractor y a su condición de reincidente, el peligro potencial creado para él mismo y para los demás usuarios de la vía y al criterio de proporcionalidad.

*Artículo 140.*

Aquellas infracciones cometidas en vía urbana cuya sanción no corresponda al Alcalde, serán denunciadas por los Agentes Municipales y por los Vigilantes del Servicio de Control del Aparcamiento y, posteriormente, serán remitidas por el Instructor a la Administración competente.

*141. Artikulua.*

Diruzko zigorraz gain, gidabaimena edo gidatzeko lizentzia kentzeko zigorra jaso dezaketen arau-hausteen ondorioz abian jartzen diren zigor-espedienteak Udalaren organo eskudunek izapidetu eta ebatziko dituzte, baldin eta arau-haustea eragin duen jarrera zigortzea Udalaren eskumenekoa bada. Ematen den ebazpenean Alkateak espedientea Agintaritza eskudunari bidaltzea erabakiko du, arau-hauste larrien kasuan, gidabaimena bertan behera uztea edo kentzea bidezkoa den ala ez erabaki dezan; edo arau-hauste oso larrien kasuan, gidabaimena bertan behera utzi edo ken dezan.

*142. Artikulua.*

Ordenantza honetan ezarritakoari jarraiki bideratu diren zigor-espedienteak martxoaren 2ko 339/90 Errege Dekretuan eta arauzko xedapenetan araututako prozeduraren arabera tramitatuko dira.

IX. TITULUA
ABANDONATUTAKO IBILGAILUAK

I. KAPITULUA. HERRI BIDEETAN ABANDONATUTAKOAK

*143. Artikulua.*

Ibilgailu bat abandonatutakotzat joko da, ondoren zehaztuko den inguruabarren bat gertatzen bada:

143.1. Agintaritza eskudunak ibilgailua herri-bidetik kendu eta gordailatu duenetik bi hilabete baino gehiago igaro badira.

143.2. Ibilgailua, hilabete batetik gora, herri-bideko toki berean aparkatuta baldin badago, eta bere kabuz mugitzea ezinezkoa egingo duten akatsak baditu; edo matrikula plakak falta bazaizkio.

143.3. Matxura edo istripua izan duen ibilgailua esparru publiko batean utzi, eta bi hilabeteko epean, titularrak erretiratu ez badu.

*144. Artikulua.*

143.1. Artikuluan aurreikusitako kasuan, bertan izendatutako bi hilabeteko epea igaro ostean, ondorengoa eskatuko zaio titularrari: Hamabost eguneko epean, ibilgailua gordetegitik eraman dezala. Horren harira, ohartarazten zaio, agindutakoa bete ezean, ibilgailua abandonatutakotzat joko dela, eta hiri-hondakin solidoei dagokien tratamendua emango zaiola.

144.1. 143.2. artikuluan aurreikusitako kasuan, betiere, abandonatuta egoteko zantzuak dituen ibilgailuak plaka baldin badu edo titularra identifikatzen lagun dezakeen edozein ageriko marka baldin badu, honako hau eskatuko zaio titularrari: Hamabost eguneko epean, ibilgailua herri-bidetik ken dezala.Agindutakoa bete ezean ibilgailua biltegira eramango da, eta titularrari beste jakinarazpen bat helaraziko zaio, hamabost eguneko epean ibilgailua bertatik ken dezan. Bide batez, honako hau ohartaraziko zaio: Ibilgailua erretiratu ezean abandonatutakotzat joko dela eta hiri-hondakin solido bezala tratatuko dela. 1 43.2 artikuluan aurreikusitako gainerako kasuetan, ibilgailua, berehala, hiri-hondakin solido bezala tratatuko da.

144.2. Jakinarazpenak Ibilgailuen Erregistroan ageri den titularrari bidaliko zaizkio.

144.3. Abandonatutako ibilgailuak erretiratzeagatik sortu diren gastuak titularrek ordainduko dituzte.

*Artículo 141.*

Los expedientes sancionadores incoados por infracciones que, además de la sanción pecuniaria, puedan llevar aparejada la suspensión o retirada del permiso o licencia de conducción, y siempre que traigan causa de una conducta cuya sanción sea competencia municipal, serán instruidos y resueltos por los órganos municipales competentes. En la resolución que recaiga, el Alcalde resolverá remitir el expediente a la Autoridad competente a fin de que, en caso de infracciones graves, resuelva sobre la procedencia o no de la suspensión o retirada o, en caso de infracciones muy graves, proceda a la citada suspensión o retirada.

*Artículo 142.*

Los expedientes sancionadores incoados por infracciones a lo dispuesto en esta Ordenanza se tramitarán conforme al procedimiento regulado en el RD 339/90, de 2 de marzo y en sus disposiciones reglamentarias.

TITULO IX
VEHÍCULOS ABANDONADOS

CAPITULO I. EN LAS VIAS PUBLICAS

*Artículo 143.*

Se podrá considerar que un vehículo se encuentra en estado de abandono si existe alguna de las circunstancias siguientes:

143.1. Cuando transcurran más de dos meses desde que el vehículo haya sido depositado tras su retirada de la vía pública por la autoridad competente.

143.2. Cuando permanezca estacionado por un período superior a un mes en el mismo lugar y presente desperfectos que hagan imposible su desplazamiento por sus propios medios o le falten las placas de matriculación.

143.3. Cuando recogido un vehículo como consecuencia de avería o accidente del mismo en un recinto privado su titular no lo hubiese retirado en el plazo de dos meses.

*Artículo 144.*

En el supuesto contemplado en el artículo 1 43.1, una vez finalizado el plazo de dos meses fijado en el mismo, se requerirá al titular para que en el plazo de quince días retire el vehículo del depósito con la advertencia de que en caso contrario se considerará abandonado y se procederá a su tratamiento como residuo sólido urbano.

144.1. En el supuesto contemplado en el artículo 1 43.2 y siempre que el vehículo, aun teniendo signos de abandono, mantenga la placa de matriculación o disponga de cualquier signo o marca visible que permita la identificación de su titular, se le requerirá a éste para que retire el vehículo de la vía pública en el plazo de quince días. Si no lo hiciera, el vehículo será trasladado al depósito y se le enviará una nueva notificación requiriéndole para que en el plazo de quince días retire el vehículo, advirtiéndole que en caso contrario se considerará abandonado y se procederá a su tratamiento como residuo sólido urbano. En el resto de los casos previstos en el artículo 1 43.2 se le dará automáticamente el tratamiento de residuo sólido urbano.

144.2. Las notificaciones se efectuarán a quien figure como titular en el Registro de Vehículos.

144.3. Los gastos derivados de la retirada de los vehículos abandonados, serán por cuenta de sus titulares.

144.4. 1 43.3 artikuluan aurreikusitako kasuan, tokiaren edo esparruaren jabeak edo arduradunak Probintziako Trafiko Buruzagitzari baimena eskatu beharko dio ibilgailua hondakin gisa tratatzeko. Hori dela-eta, titularrari ibilgailua bere esparrutik erretiratzeko eskatu izana egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

*145 Artikulua.*

Probintziako Trafiko Zuzendaritzari aditzera eman beharko zaio ibilgailu bat abandonatutakotzat jo dela, eta ondoren, hirihondakin solidoei dagokien tratamendua eman zaiola.

*146. Artikulua.*

Gordailatutako ibilgailuen titularrak zein diren edo non dauden jakiterik ez badago, eta titularrak aurkitzeko egiten diren gestioek inolako emaitzarik ematen ez badute, arestiko paragrafoan aipatutako jakinarazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako ediktuen bitartez egingo da.

*147. Artikulua.*

Titularrek, berariaz, ibilgailuak abandonatzeko asmoa dutela adierazten badute, Udalak egokien irizten dion moduan erabiliko ditu ibilgailu horiek.

*148. Artikulua.*

Abandonatutako ibilgailuak besterentzeko prozedurak ez du aldatuko titularrek ibilgailuak abandonatzeagatiko edo titulartasun horren ondorioz aurretik hartu dituzten betebeharrekiko duten erantzukizuna.

## II. KAPITULUA. UDALAREN GORDETEGIRA ERAMANDAKOAK

*149. Artikulua.*

Trafikoko arau-hausteen, trafiko istripuen, bukatuta dagoen prozedura judizial baten menpeko egintzen edo justifikatutako arrazoien ondorioz, Udalaren gordetegira eraman dituzten ibilgailuak abandonatutakotzat joko dira eta arestiko paragrafoan adierazitako tratamendu berbera emango zaie, baldin eta gordetegira eraman dituztenetik edo prozedura amaitu denetik bi hilabete igaro badira, eta titularrek edo jabeek erretiratu ez badituzte.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean jarri ostean, indargabetuta geldituko da 1998ko maiatzaren 22ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen herriko bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantza. Horretaz gain, maila bereko edo maila baxuagoko udal xedapenetan jasotako zehaztapenak indargabetuko dira, baldin eta Ordenantza horretan arautuakoaren aurka badaude.

144.4. En el supuesto previsto en el art. 1 43.3 el propietario o responsable del lugar o recinto deberá solicitar de la Jefatura Provincial de Tráfico autorización para el tratamiento residual del vehículo. A estos efectos deberá aportar la documentación que acredite haber solicitado al titular del vehículo la retirada de su recinto.

*Artículo 145.*

De la consideración de un vehículo como abandonado y su posterior tratamiento como residuo sólido urbano se dará cuenta a la Jefatura Provincial de Tráfico para su conocimiento y efectos oportunos.

*Artículo 146.*

Cuando los titulares de los vehículos depositados fuesen desconocidos o se encontrasen en ignorado paradero, una vez que resulten infructuosas las gestiones para su localización, la notificación a que se refiere el número anterior se practicará mediante edictos publicados en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Artículo 147.*

En los supuestos en que los titulares hayan manifestado en forma expresa su voluntad de abandonar los vehículos, el Ayuntamiento dispondrá de ellos como resulte más conveniente.

*Artículo 148.*

El procedimiento para la enajenación de vehículos abandonados no alterará la responsabilidad de sus titulares por el abandono de los mismos o por obligaciones contraídas anteriormente derivadas de dicha titularidad.

## CAPITULO II. EN EL DEPÓSITO MUNICIPAL

*Artículo 149.*

Aquellos vehículos que hayan sido retirados al depósito municipal por infracciones de tráfico, accidentes de tráfico, por hechos sometidos a un procedimiento judicial concluido o por otras causas justificadas, y habiendo transcurrido dos meses desde su entrada en el depósito o desde la conclusión del procedimiento sin haber sido retirados por sus titulares o propietarios, se considerarán como vehículos abandonados y se procederá del modo previsto en el Capítulo anterior.

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Con la entrada en vigor de la presente Ordenanza, queda derogada la Ordenanza municipal reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 22 de mayo de 1998, así como las determinaciones de las disposiciones municipales de igual o inferior rango, en lo que se opongan a lo regulado en la misma.

## ERANSKINA / ANEXO

### TRAFIKO ARLOKO ARAU-HAUSTEEI ETA ZIGORREI BURUZKO TAULA. 2010 URTEA
### TABLA DE INFRACCIONES Y SANCIONES EN MATERIA DE TRÁFICO AÑO 2010

| *Arau-Haustearen Deskribapena*<br>*Descripción de la Infracción* | *Art.* | *Sailk.*<br>*Calific* | *Zenbatekoa (€)*<br>*Importe (€)* |
|---|---|---|---|
| Atoia buru higiarazlerik gabe aparkatzea<br>Estacionar remolque sin cabeza tractora | 35 | Arina<br>Leve | 40 |
| Geldi edo abian dagoen ibilgailu batetik edozein motatako hondakinak jaurtitzea<br>Arrojar cualquier tipo de residuo desde el vehículo, parado o en marcha | 79 | Arina<br>Leve | 40 |
| Herri-bidean ibilgailuak garbitzea<br>Efectuar lavado y limpieza de vehículos en la vía pública | 80 | Arina<br>Leve | 40 |